

Pello Añorga

Antzuolako umeeekin egon zen zapatuan

KULTURA, 24



Erraz irabazi zion Aloñak Mondrari

4-leko emaitzarekin beheko postuetatik urrundu da Aloña

KIROLA, 13

Roge Blasco

Arrasaten izango da eguenean

KULTURA, 26



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko martxoaren 7a • 2. urtea • 48. zenbakia • 0,90 euro

Emakume langilearen eguneko agerraldia bihar Arrasaten

Martxoaren 8rako ekintza ugari antolatu dituzte bailarako emakume taldeek

KALE AGERRALDIA

Emakumearen Kontseiluak kale agerraldia deitu du bihar, Arrasaten. Seber Altuben, 19:00etan

TRATU TXARREI BURUZ

Emakumeen kontrako tratu txarren gainean filmak emango dituzte Arrasaten eta Antzuolan

EMAKUME AZOKA

Martxoaren 8ko ekitaldiak asteburura luzatuko dira. Zapatuan azoka berezia egingo da Arrasaten

EMAKUMEAREN ASTEA

Bergarako Beke eta Jam aretoko emakume taldeek dantzaldia eta eztabaidak antolatu dituzte



M.D.

Pilota Bergaran Asperen eskutik

Udalak eta Aspek abendura arteko hitzarmena sinatu zuten barikuan 18-19

Bihartik aurrera lekuz aldatuko dute Bergarako autobus geltokia 9

Osintxuko baserritarrak pozik

Eramandako ia guztia saldu zuten zapatuan, Santu Martirien ferian 2-3

Imanol Mujika euskaltzale bergararra omendu dute

Euzko Izaera, Mikoleta elkarteak, Bizi Hitza eta ENA elkarteak antolatutako omenaldi ekitaldia jaso zuen barikuan Imanol Mujika euskaltzale bergararrak. 84 urte ditu eta hainbat urte Argentinan eman ondoren Donostian bizi da gaur egun. Euskararen jatorriaren ikerketan egindako lana eskertu nahi izan zioten omenaldiarekin. Hainbat libururen egilea da Mujika, besteak beste: *Linguistica Basca, Iainkoa Sabiduria de la Naturaleza* eta *Euzko Elea Etorburuko Esan Naia*.

Beste ekarpen batzuren artean, bokal eta kontsonante bakoitzaren naturaren bibrazio batekin lotu zuen eta, horren bidez, hitz askoren etimologia azaldu du. Bittor Kapanaga otxandiarra ere omendu zuten. 5



AITOR LIZARRALDE

SAUNDERS, RUPER ORDORIKA LAGUN DUELA ARITU DA

Oñatiko Gaztelekuan atzo eta Elgetako Espaloian egubakoitzean aritu ziren Fernando Saunders -Lou Reeden baxu jotzailea- eta bere taldea. Ruper Ordorikak *Hurrengo goizean* lanean Saunders izan zuen musikari aspalditik ezagutzen baitute elkar. Kontzertu bietan parte hartu zuen oñatiarrak Saunders lagunaren ondoan. 24

GEUREAN

- Gazte Mugik Markinan egingo diren topaketetara joateko deia egin du | 4
- MUK eta Aldundiak garapen iraunkorra oinarri duen akordioa sinatu dute | 4



Nekane San Miguel epailearekin genero bortizkeriaren gainerako lege berriaz jardun dugu | 6

SANTU MARTIRIEN FERIA, OSINTXU AUZOAN



AITOR LIZARRALDE

Txurrunillo elkarteak gozoak, ogia eta gazta saldu zituen. Berrogeita hamar bat tarta zeuzkaten saltzeko eta ia guztiak saldu zituzten.

SANTU MARTIRIEN FERIA | EGURALDIAREN ERAGINEZ BELAR META ERAKUSTALDIA BERTAN BEHERA GERATU ZEN

Jende asko ez, baina eramandakoa saldu zuten Osintxuko baserritarrek

Auzoko baserritarren barazkiak erosteko aukera izan zuten bertaratu zirenek; baita gozoak ere

Duela bost urte berreskuratu zuen jaia Emeterio eta Zeledonio santuen harira auzoko Txurrunillo elkarteak

Monika Belastegi

Eguraldiaren eragina nabaritu egin zen zapatuan Bergarako Osintxu auzoan egin zuten ferian. Elurrik ez, baina hotzaren eta euriaren ondorioz, ez zen iaz beste jende joan. Hala eta guztiz ere, baserritarrak eta gozogileak pozik zeuden, eroandako ia guz-

tia saldu zutelako. Mugarri baserriko Luis Marik esan zigunez, "goiz ibili da jendea erosketak egiterako orduan, iaz baino goizago etorri da, eta ekarritako irasagar ia guztia saldu dut". Horrez gain, haren amak ezagun egin eta min askorendako balio duen *pomadita Paula* ere saltzen zeukan.

Luis Marirenaren ondoan Joxe Arbelaitzek zeukan postua. Ortuko produktuak zeuzkan, eta hau garairik onena ez izan arren, hainbat gauza zituen salgai: etxean egindako tomatea, porruak, berakatz berria, patata, babak (zuriak, gorriak eta ijito babak), azak, letxugak... Joxek ere erosleak iaz baino goizago ibili zirela esan zigun, eta pozik zegoela saldutakoarekin. Bestalde, eguraldiaren eraginaz ere jardun zigun, eta azkeneko elurte eta izozteek barazkiei batere onik egin ez diela gehitu zuen: "azak, porruak, berakatz berria eta azelgak, esaterako, erre egin dira eguraldiagatik". Horrek barazkien prezioan eragin duela ere aitortu zuen, baina beste maila bateko saltokietan: "guk postuan iazko prezio antzekoak ditugu; batez beste, 10 zentimo gehiago".

Esandakoez gain, azokan baziren postu gehiago: Olalde eta Azkorta Erdikokoek barazkiak saldu zituzten; Txurrunillo elkarteak gozoak, gazta eta ogia, eta Arti Lorek lore lehorrak eta

xaboi naturalak. Horrez gain, beste postu batean, Jabier Astigarragaren egur tailak ere baziren, koadroak –euskal gaiekin– eta kutxak, hain justu ere.

BESTELAKO EKITALDIAK

Azoka borobiltzeko ekitaldi gehiago egon ziren Santu Martiri- en ferian: goiz osoan trikitalariek jardun zuten giroa alaitzen eta talo eta sagardo postua ere jarri zuten. Horrez gain, Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeak saioa egin zuen eta harri jasotzaileak ere egon ziren. Belar metak nola egiten diren ere erakustekoak ziren, baina euriarengatik bertan behera geratu zen ekitaldia.

Santu Martiri- en feria duela bost urte berreskuratu zuten Emeterio eta Zeledonio santuen harira eta auzoko Txurrunillo Herri Batzordeak antolatzen du.

Erosleak goizago hurbildu ziren eta baserritarrak pozik daude salmentekin

Azkeneko elurte eta izozteek barazkiei batere onik ez diela egin diote baserritarrek

SANTU MARTIRIEN FERIA, OSINTXU AUZOAN

• AZOKA BOROBILTZEKO HAINBAT EKITALDI EGON ZIREN GOIZEAN ZEIN ILUNTZEAN



INGURUAK TXUKUNTZEN. Aurreko egunetan egindako elurraren arrastoak zeuden oraindik zapatu goizean Osintxuko plazan. Goizeko lehenengo orduetan labainkor zegoen, gainera, plaza. Hori horrela, eta azokara bertaratzen zirenak erosoago ibiltzeko, inguruak garbitzen jardun zuten auzoko umeek txintxo-txintxo. Erratzak eskuan hartu eta elurra bazterretan pilatzen ibili ziren. Baina tentazioari ezin eutsi eta elur pilotaren bat ere ikusi genuen airean.

DANTZARI GAZTEAK. Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeko dantzari gazteek saioa egin zuten pilotalekuan. Hamaika ume joan ziren Osintxura, hamar neskatu eta mutiko bat, guztiak zazpi eta bederatzita urte bitartekoak. Moises Azpiazu taldean dantza suelta ikasten dute, fandagoa eta arin-arina, hain justu, eta horixe da pilotalekuan egin zutena, baina koreografiarekin nahastuz eta taldean, ez bikoteka. Jende multzo polita batu zen neska-mutikoon saioa ikustera.



GOENATXO HARRIA JASOTZEN. Goenatxo harri jasotzailea ikusteko aukera ere izan zuten Santu Martirien feriarik hurbildu zirenek. Nafarroako harri jasotzaileak 152 kiloko harri laukiarekin eta 225ekoarekin egin zuen erakustaldia. Pilotalekuan jardun zuen eta jende ugari batu zen haren ingurura, nagusiak eta baita umeak ere. Azken horiek begiak zabal-zabal begiratzen zioten eta bat edo beste Goenatxo imitatzen saiatu zen erakustaldia bukatu ondoren.

BERTSO AFARIA. 60 lagun inguru batu ziren gauean, Txuringo jatetxean izandako bertso afarian. Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariak aritu ziren eta gai jartzailerik Iñaki Etxanizek jardun zuen. Muruaren ordez Andoni Egaña zen joatekoa, baina gaixo dagoela eta ezin izan zuen joan. Afaria eta afari ondorena oso biziak eta alaiak izan ziren; pentsa, 21:00etan sartu ziren jatetxean eta 02:30ak jota atera ziren. Haritz eta Enaitz trikitilariak ere lagun izan zituzten.

• BATZUEK SALDU, BESTEEK EROSI, ETA GEHIENEK TALOA JAN



LEIRE | OSINTXU

“Aurrekoetan baserritar jantzita egon izan naiz; gaur ez, hotzagatik”

Postuan zegoen Leire, gurasoekin, ortuko produktuak saltzen. Aurreko urteetan baserritar jantzita egon izan da, baina aurtan ez, “egiten duen hotzagatik”. Gainera, “halako eguraldiarekin pena da, ekitaldiak zatartu egiten direlako”.



JESUS ETA KARMELE | BERGARA

“Alaba dantza egiten ikustera etorri gara. Saioa bukatu eta gero taloa jateko asmoa daukagu”

Lehenengoz izan da Jesus Santu Martirien ferian, Karmele, berriz, ia ez egon zen. Alabak Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeak dihardu eta haren saioa ikustera joan ziren. Saioaren ostean erosketaren bat egiteko asmoa ere bazutela esan ziguten: “Oraindik ez dugu ezer erosi, baina ogia, behintzat, erosiko dugu; baita taloa jan ere”.



MIKEL ETA JON | ARRASATE

“Taloa jan eta harri jasotzaileak noiz hasiko zain gaude. Asko gustatzen zaizkigu”

“Aita Osintxukoa da eta horregatik etorri gara. Askotan etorri izan gara, gainera”, esan zigun Mikelek. Jon laguna du, eta Osintxuko azoka ikustera gonbidatu zuten. Taloa eta txorizoa jaten harrapatu genituen eta harri jasotzaileak noiz hasiko zain; izan ere, “hori da gehien gustatzen zaiguna”. Bestalde gazta ere erosi zutela esan zuten etxera eramateko.



AINTZANE AGIRRE

Bergarako Korrika batzordeak antolatutako mahai inguruan euskalgintzako hainbat kide elkartu ziren.

Euskararen egoeraz hitz egiteko guneak falta dira

Zapatu eguerdian Bergaran egindako mahai inguruan egiteko asko azpimarratu ziren, baita Korrikan parte hartzeko deia luzatu ere

Asteleheneko Goienkaria

Euskal Herria euskalduntzea zer den eta egiteko daudenak gai hartuta solasaldia antolatu zuen zapatu eguerdian Pol Pol mendi elkartearen txokoan Bergarako Korrika batzordeak.

Bertan, euskalgintzako hainbat kide eta gizarte eragilek hartu zuen parte, besteak beste ordezkariak izan zuten AEKK, udaleko euskara batzordeak, Jardun euskara elkarteak, LAB sindikatuak eta Elhuyarrek. Fermin Lazkano ere bertan izan zen.

EGITEKO UGARI

Ordu eta erdiko solasaldiaren ondoren hainbat egiteko azaldu ziren, hala nola, euskararen ofizialtasuna eta estatus juridikoa

lortzea, erabilera eta kontzientziarazioa lantzea, elebitasuna eta eleaniztasuna bultzatzea... Komenigarria ikusi zen, gainera, Bergaran zein Euskal Herrian hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuak lortzea.

Solasaldian atera zen ondorio nagusia, ordea, euskararen egoeraz eztabaidatzeko guneen

Datorren astean herri jaialdiak, kontzertuak eta bi antzerki emanaldi izango dira korrika kulturalean

beharra izan zen eta zapatuko hitzordua horren abiapuntutzat hartu zuten.

Amaitzeko, datorren zapatuan, martxoak 12, herrian egingo den jaialdian parte hartzeko deia eta martxoaren 16an Korrikan lasterka egiteko gonbita egin zituzten.

KORRIKA MAHAIAK

Asteburuan, bestalde, AEK-k Korrika laguntzaile egiteko mahaiak jarri zituen ibarreko hainbat herritan.

Zapatuan, 12 euroren truke nahi izan zuen orok Korrika laguntzaile egiteko aukera izan zuen Bergarako San Martin plazan, Arrasateko Portaloian eta Elgetako plazan.

Datorren asteburuan Korrika ekitaldi gehiago egingo dira gure ibarrean, besteak beste Bergaran eta Arrasaten: herri jaialdiak, kontzertuak gaztetxeetan eta antzerki ikuskizun bana, hain justu ere.



AMAGOIA LASAGABASTER

Egubakoitzean egin zuten prentsurrekoa Eskoriatzako ikasleek.

Gazte Mugiko ikasleek HUHEZIn deia egin dute

M.D.

Martxoaren 25ean eta 26an Markinan elkartuko dira Euskal Herriko gazteak. Hainbat lan taldetan banatuko dira egitasmoak eraginkorrak izateko, eta Eskoriatzako HUHEZIn egin zuten egubakoitzean ikasle taldearen aurkezpena.

EUSKAL CURRICULUMA

Aisialdi, gazte asanblada, irrati libre eta ikasle talde-

tan banatuko dira gazteak Gazte Mugian. Ikasle taldeari dagokionez, euskal curriculumari ekarpena egiteko asmoa daukate. Prentsurrean adierazi zutenenez, "euskal curriculum amets izatetik errealitate bilakatzea nahi dugu eta ikasleen ekarpenak berebiziko garrantzia dauka jardun horretan".

Gazte Mugi Euskal Herriko gazte mugimenduetako eragilek osatzen dute eta Markinan izango diren topaketetako lana aurreratze aldera webgunea jarri dute abian: www.gaztemugi.com.

• ALDUNDIA, IHOBE ETA MU-REN ARTEKO HITZARMENA



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

GARAPEN IRAUNKORRA IKERTUKO DU MU-K

2020ra bitarteko hitzarmena sinatu dute IhoBE, Aldundia eta MUK garapen iraunkorrean aritzeko. Ekodiseinu azterketa gela ere sortuko dute, 166.420 euroko aurrekontuarekin. Horretarako bekak sortuko dituzte eta 8 orduko lanaldian arituko dira lau ikasle.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA

Ipar
project s.l.
SUKALDEAK - BAINUAK - ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.

Labegarieta Industrialdea BERGARA.
Tel.: 943 76 98 30. Faxe: 943 76 52 44.





AITOR LIZARRALDE

Gatzagako Sorginak emakume taldeak bazkaria egin zuen martxoaren 8a gogora ekartzeko.

Emakume langileen egunaren haritik hainbat ekintza antolatu dituzte

Kale agerraldiak, afariak, zine emanaldiak, dantzaldiak, antzezlanak eta beste hainbat ekintza antolatu dituzte Debagoiengan

M.D.

Martitzenean da eguna eta Arrasateko Emakumeen Kontseiluak kale agerraldia deitu du Seber Altubetik (19:00). Bergaran, 17:30ean, txokolatada eta dantzaldia iragarri dituzte Artatsen, Beke eta Jam aretoko emakumeek. Eskoriatzan, berriz, *Abuela* antzezlan egingo du Virginia Imazek, 18:00etan Ibarraundin, Udalak eta Amuska taldeak antolatuta.

Emakume langileen eguna-

ren ostekoetan ere bada egun hori gogora ekartzeko hitzordurik. Eguaztenean eta egueanean, Bergaran, Latinoamerikako emakume talde batek hitzaldia egingo du Go Jam aretoan (18:30). Martxoaren 11n, Antzuolan, *Te doy mis ojos* filma jarriko dute eta emakumeen kontrako tratatu txarren gaineko berbaldia emango du Ermuko Emakumearen Sustapenerako arduradun Asun Ramosek. Asteburuan emakumeen azoka dago Arrasaten, eta

afaria, Aretxabaletan. Afarirako deitu: 943 71 42 22.

EMAKUME LANGILEAK

ESK sindikatuak egin du emakume beharginen gaineko azterketa Bergarako MAYC enpresan. Datuen arabera, 2003ko urtarriletik 2005eko otsailera bitartean MAYCen egindako behin behineko 313 kontratuetatik %29 sinatu zituzten emakumeek. Sindikatuak salatu du, epe horretan egindako kontratazioen %70 gizonen izan direla eta "denbora laburragan lortzen dute mugagabeko kontratua, emakumeekin alderatuta. Emakumeek ezegonkortasunaren kateari lotuak jarraitzen dute".

• ZUBILLAGAKO HILTEGIRA BISITALDIA

EA, EB, ARALAR ETA ELIZATEETAKO ZINEGOTZIAK JOAN ZIREN

Egubakoitzean hainbat herritako udal ordezkariak Zubillagako hiltegiko instalazioak ikusten egon ziren. Eusko Alkartasuna, Ezker Batua, Aralar eta Eskoriatzako Elizateetako zinegotziek bertatik bertara ikusi nahi izan zituzten instalazioak. Siadeco enpresak hiltegiaren gaineko bideragarritasun azterketa egin berri du eta hiru aukera eman ditu zabalik mantentzeko. Hiltegiara joandako alderdietako kideak zabalik mantentzearen aldekoak dira. Hiru aukeren artean bat hautatzeko bilerak egingo dituzte datozen egunotan.



JULEN IRIONDO



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Bittor Kapanaga eta Imanol Mujika omenaldi ekitaldian.

Omenaldia egin diote Imanol Mujika bergararrari

L.Z.

Euzko Izaera, Mikoleta elkarteak, Bizi Hitza eta ENA elkarteak antolatutako omenaldi ekitaldia jaso zuen barikuan Imanol Mujika euskaltzaleak.

Bittor Kapanaga otxandiarra ere lagun izan zuen debagoien-darrak, biei euskararen jato-

rriaren ikerketan bitzta osoa eman izana eskertu zitzaizen eta.

Imanolen arabera, euskara jatorrizko hizkuntza da eta hitz askoren etimologia azaldu du bokal zein kontsonante bakoitza naturaren bibrazio batekin lotuta. Bere ekarpenak hainbat liburutan azaltzen dira besteak beste 1.966ko *Lingüística Baskan*.



gure bizitzako
ASTE SANTURIK onena

<p>Madrid</p> <p>03/24tik 03/28ra. 5 egun - 4 gau. Autobusa. Chamartin Hotela****. Gosariak barne. AVILA ETA TOLEDORAKO TXANGOAK BARNE. Ex daude barne: sarrearak.</p>	<p>245€</p> <p><small>Dinarriko prezioa pertsona bakoitzeko</small></p> <p>40.765 Pta</p>
<p>Galicia</p> <p>03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). Autobusa. Hotela** Dena barne. HAUEK BARNE: TXANGOAK, JATORDUETAKO URA/ARDOA, ITSASKI-JANA.</p>	<p>280€</p> <p><small>Dinarriko prezioa pertsona bakoitzeko</small></p> <p>46.588 Pta</p>
<p>Lisboa</p> <p>03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). Autobusa. Novotel Hotela***. Gosariak barne.</p>	<p>275€</p> <p><small>Dinarriko prezioa pertsona bakoitzeko</small></p> <p>45.756 Pta</p>
<p>Italia</p> <p>VENECIA - FLORENCIA, FLORENCIA - ROMA, FLORENCIA - VENECIA.</p> <p>03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). Autobusa. Hotela****/****. Gosariak barne. IKUSTEA BARNE.</p>	<p>350€</p> <p><small>Dinarriko prezioa pertsona bakoitzeko</small></p> <p>58.235 Pta</p>
<p>París</p> <p>03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). Autobusa. Hotela**. Gosariak barne. PARIS IKUSTEA BARNE.</p>	<p>259€</p> <p><small>Dinarriko prezioa pertsona bakoitzeko</small></p> <p>43.094 Pta</p>
<p>Bretaña-Normandía</p> <p>03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). Autobusa. Hotela**. Mantenu erdia. HAUEK BARNE: TXANGOAK.</p>	<p>315€</p> <p><small>Dinarriko prezioa pertsona bakoitzeko</small></p> <p>52.412 Pta</p>





EREKI *viajes*

merezi duzu

www.viajeseroski.es

Bihar, martitzena, martxoaren 8a dugu. Sexu bereizketak, zoritxarrez, zeresan handia ematen du gaur egun oraindik ere eta indarrean sartu berria den 1/2004 lege

organikoari buruz zenbait galdera egin dizkiogu Nekane San Miguel epaile arrasatearrari. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean hartutako neurri

berria da. Nekane lege eraginkorra izango delakoan dago baina argi du, aldi berean, heziketa oso garrantzitsua dela genero bortizkeria desagertzeko joateko.

NEKANE SAN MIGUEL | EPAILE ARRASATEARRA

"Eskubide berak ditugula sinetsitakoan bukatuko dira bortizkeria arazoak"

Larraitz Zeberio

Zein berrikuntza planteatzen ditu 1/2004 lege organikoak?

Niretzat, eta beste neurri zehatz batzuek gain, berrikuntza garrantzitsuenetarikoa indarkeria mota honen arazoia, legean bertan, argi eta garbi agertzekoaren aipamena da. Lehenengo emakume taldeek, eta aurrerago NBK (CEDAWen proposamenez onarturik) behin eta berriz esanikoa, hau da, indarkeria hau gizonek emakumeak eurek baino gutxiago garelakoan hartzen gaituztelako dela.

Legea eraginkorra izango da?

Eraginkorra izateko pentsatuta dago. Horren adibide bat, xedapen gehigarrietariko batean agertzen den agindua da; indarrean sartu eta hiru urtetara lortutakoa berraztertuko da. Helburuak lortzeko zertan geratu den motz, eta, beharbada, zer aldatu behar den aztertuko da.

Legeak zein tresna ematen ditu?

Tresnak, halako eremuetan, betikoak dira. Egitura eta instituzio berriren bat sortu, arau eta zigor berriak ezarri, baita epaitegi berriak sortu ere. Dena den, egoera honi aurre egiteko burura etorri ohi zaigun ia gauza bakarra zigorra da. Baina zigorra, beti, kaltea egin eta gero dator. Hori gerta ez dadin, pertsona HEZI egin behar dugu eta horretan lege honek baditu aurreikuspen batzuk. Ea egia bihurtzen diren. Erasoak gehituz ei doaz. Biktimak justiziaz fidatu daitezke?

Erasoak lehen baino gehiago diren jakiteko ez dugu daturik. Ez ahaztu, orain gutxi arte, erasotu-

tako emakumeei jaramon gutxi egiten zitzaiela, "etxe barruko" edo "bikotekideen arteko" arazotzat harturik ez zen arazoa kanporatzen. Babesa edo laguntza nolakoa eta abar ezbai luze eta sakona egin beharko litzateke, baina nik gauzatxo bat azpimarra dezaket. Azken urteetan izan diren hilketen "arazoia", neurri batean, "berria" da; hildako emakume horrek libre izateko eta bere erasotzailearengandik aske bizitzeko erabakia hartu ondoren izan da eraila. Erasotzaileak hori jasan ezin duelako.

"Erakundeek ez diete entzuten tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei". Esaldi justifikatua?

Orain urte batzuk agian bai, baina nik uste azken bost edo sei urteetan txipa aldatu dela. Ez behar adina, baina aldatuz doa.

Egia da emakume askok ez dituztela urruntze-agintea betetzen?

Egia da emakume askoren "konplizitateaz" urratzen direla urruntze-aginduak, baina horren arazoia azaltzea oso korapilotsua da. Erasotutako emakumea, prozesu luze baten ondorioz, deuseztatuta dago, ezertarako balio ez duela oso barruraino sartu dio erasotzaileak, eta harengandik urruti ezin izango duela iraun sinetsita dago. Gero, gizarte zer-

"Indarkeria gizonezkoek gu eurak baino gutxiago garelako uste dutelako dago"



Nekane San Miguel epaile arrasatearra.

bitzuetan, maiz, emakume horri duintasuna berreskuratzen lagundu beharrean halako "errukizko babesa" ematen zaio. Hala, erasotzaileen besoetatik instituzioen besoetara pasatzen da autonomiarik gabe, duintasunik gabe.

"Legeek lagunduko dute, baina ez dago zer eginik umeen heziketan neurririk hartzen ez bada"

Hala, berriz, "etxera" itzultzen da. Horri buelta ematen daukagun lana izugarria da.

Ezinbestekoa da legegileek gaia lehenasunezko hartzea?

Bai, eta datozen hilabeteetan lege aldaketak aurreikusita daude emakumeon ezberdintasun egoerari aurre egin nahian.

Iritzi publikoaren presioa handia da?

Ez bakarrik gai honetan. Aspaldiko urteetan epaileok hedabide- etara ailegatzen diren iritzien kontrako ebazpenik ematen badugu, denetarik jasan behar dugu (deskalkifikazioak, gure ohorearen kontrako irainak eta abar luze bat).

Zer gehiago egin daiteke arazoari aurre egiteko?

Lehenasuna heziketan dago. Ume umetatik mutiltxoari sinestartzen zaio halako "zintzilario" bat duelako gehiago dela. Gero liburutetan, eskolan, etxean, telebistan, zinean, lanean eta abar ikusi, entzun eta xurgatzen duen guztian hori geroz eta nabarmenago gelditzen zaio (zaigu). Keinu txikiena ere zalantzan jartzen ez dugun bitartean, ez dago zer eginik. Legeek lagunduko dute halako pertzepzioa aldatzen, eta eraso gertatutakoan erantzuten, baina lehena, bestea da.

ARTXIBOA



OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

Albiste izango da

OÑATI | MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK DAGO

Cambridgeko ingelesezko azterketak egiteko aukera dago

Cambridgeko unibertsitateko ingelesezko azterketak Oñatin egiteko aukera egongo da aurrerantzean. Debagoieneko ikasle guztiek izango dute aukera hori, Elkar Hezi ikastetxearen eskutik. Bide batez, merkeagoa ere izango da. Matrikula egiteko epea zabalik dago hilaren 18ra bitartean. Argibideetarako, deitu 943 78 28 70 telefono zenbakira.

Cambridgego unibertsitateak eta Euskal Kristau Eskolak sinatutako hitzarmenari esker izan du Elkar Hezik aukera Cambridgeko azterketa ofizialak bertan egiteko.

DEBAGOIENA | GUZTIAK GAUR ETA BIHAR BITARTEAN

Gurasoei zuzendutako hainbat hitzaldi antolatu dute ikastetxeek

Arrasaten, *Nola hasi eskolan modu egokian* izeneko hitzaldia antolatu du Arizmendi ikastolak. Bihar, martitzena, izango da, Ume-zaintza gunean, 18:00etan, eta Haur Hezkuntzako umeen gurasoei zuzenduta dago. Eskoriatzan, berriz, *Nola jokatu ikasleen arteko agresibitatearen aurrean* delako hitzaldia izango da gaur, astelehena, Almenen, 18:00etan, Lehen Hezkuntzako umeen gurasoendako, Arizmendi ikastolak antolatuta. Oñatin beste bi hitzaldi egongo dira bihar, martitzena: Elkar Hezi ikastetxeko areto nagusian *Baloreen sustapena eta transmisioa familian* izeneko egingo dute bihar, 19:00etan. Eta Txantxiku ikastolako aretoan, berriz, heziketa afektibo-sexuala izango dute berba, 18:30ean.

OÑATI | ETZI, EGUAZTENA, 19:00ETAN

'Bikila' eta Mikel Irizar kultura etxean Aralarrek gonbidatuta

Ezker Abertzale zibil eta zabala erai ki nahi duela dio Aralarrek, eta ezker abertzaleari dagokiola euskal erakundeen politika neoliberal agerian utzi eta alternatiba egingarriak eskaintzea. Horren gaineko azalpenak emateko hitzaldi sorta antolatu dute Euskal Herriko hainbat herritan. Gurean, Oñatin izango da, etzi, eguaztana, 19:00etan, kultura etxean. Joxe Iriarte *Bikila* eta Mikel Irizarrek emango dituzte azalpenok.



Joxe Iriarte *Bikila*

BERGARA | MARKESINAK ETA KOMUNAK JARRI DITUZTE

Bihartik aurrera Torrekua pareko geltokian geratuko dira autobusak

Udalak Pesako erabiltzaileei jakinarazi nahi die autobus geltokia tokiz aldatuko dela. Bihartik, martitzena, aurrera, Ibargarai kaleko 35 zenbakiaren parean —saihesbidearen bidegurutzearen ondoan— egokitu berri duten autobus geltokian geratuko dira autobusak. Aurrerantzean, beraz, han hartu eta lagako dituzte erabiltzaileak autobusek.

Autobusendako egokitu duten Ibargarai gune berri horretan markesinak eta komunak jarri ditu Udalak, beste gauza batzuen artean.

BERGARA | PLAZA MUGATUAK DIRA

Azken egunak bizikletaren gaineko ikastaroan izena emateko

Jardun euskara elkarteak bizikletaren oinarrizkoak ikasteko ikastaroa antolatu du. Besteak beste, bizikletaren zulatuak nola konpondu eta postura egokiak zein diren irakatsiko dituzte ikastaroan. Lizarralde Kirolak dendako mekanikariak egingo dute ikastaroa, eta bi saio izango dira: martxoaren 11n eta 18an, 19:00etatik 21:00etara, Bergarako Arrizuriaga jauregian. Izenematea etzi, eguaztana, bukatuko da, eta plaza mugatuak dira. Prezioari dagokionez, euskaltegiatiko ikasleendako doan da, Jarduneko ikasleendako 4 euro eta gainerakoendako 6. Izena emateko deitu 943 76 36 61 zenbakira.

Hitzorduk



ESKORIATZA ETA ARETXABALETAKO UDALEKUETARAKO LANGILE BILA | Curriculumak aurkezteko epea zabalik dago apirilaren 1era bitartean

Negu latza izaten ari gara, baina udal batzuk hasiak dira dagoeneko udako ekintza batzuk antolatzen; herrietako udako udalekuak, adibidez. Lan horretan ari dira Antzuolako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalak. Azken bi horietan, udalekuotan zuzendari eta begiraleak (Eskoriatzan) edo baka-

rrik begiraleak (Aretxabaletan) lan egiteko lagunak behar dituzte. Curriculumak dagokion herriko kultura etxean utzi behar dira apirilaren 1a baino lehen.

Antzuolan, bestetik, apiril hasieran zabalduko dute umeendako izenemate epea.

ARETXABALETA |

- **Nagusilan boluntario proiektua aurkeztuko dute** Nagusilan, nagusiek giza boluntario moduan lan egiteko programa, aurkeztuko dute Javier Aranguren eta Tomas Atxak egunean, hilak 10, Basotxo egoitzan, 17:00etan.

ARRASATE |

- **Norberaren ezaqutza eta autoestimua tailerra hasiko da** Ekin Emakumeak elkarteak antolatu du tailer hori martxoaren 16 eta 17rako, 18:00-20:00 ordutegian, Arantzazu Loidiren eskutik. Ekinen egoitzan izango da, Olarte kalean. Izena emateko, deitu 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonora egubakoitza baino lehen.

- **Softwarea eta aplikazioak alokatzeko zerbitzuaz**

Softwarea eta aplikazio informatikoak alokatzeko zerbitzuaren gaineko hitzaldia egingo du Miramon Enpresa Digitalak bihar, martitzena, Goi Eskola Politeknikoan, 18:00etan. Zerbitzu horien kontratazioa azalduko dute eta birus informatikoen gaineko esku-liburua aurkeztuko dute.

BERGARA |

- **Euskal eskolaren aldeko eguna deitu dute** Egunean izango da eta Euskal Herriak Bere Eskola tal-

deak deitu du. 17:15ean haurrendako jolasak eta txokolate jana egongo dira. 18:00etan, berriz, ekitaldia. Guztia Muni-be plazan.

- **Sahararen egoeraz berba egingo du aditu batek**

Sahararen egoeraz berbaldia egingo du Jesus Garai Sahararen Lagunen Elkarteko kideak egunean, hilak 10, kultura etxean, 19:30ean.

- **Herri Batzarra deitu du Batasunak hilaren 10erako** Martxoaren 10ean, eguena, batuko dira Elementalean, 19:00etan. Egoera politikoaz eta EAEko hauteskudeez berba egingo dute.

ESKORIATZA |

- **Korrika Batzordearen Batzarra izango da etzi** Batzartuko dira kultura etxean, 18:00etan. Batzar irekia da.

OÑATI |

- **Umeei masajeak ematen ikasteko tailerra egingo dute** Gurasoek umeei masajeak ematen ikasteko tailerra eman- go du Jone Beitialarrangoitia psikoterapeutak. Apiril hasieran hasiko da eta zazpi saio izango dira. Izenematea: 657 72 00 49 telefono zenbakian.

- **Pirineotara irteera- ikastaroa, Aloña Mendirekin** Zapatu eta domekarako, hilak 12 eta 13, antolatu du irteera-

ikastaro hori Aloña Mendik. Izena emateko mugaeguna da etzi, eguaztana, Aloña Mendi tabernan. 24 lagunendako lekua dago. 55 euro ordaindu behar dute helduek, eta 50, berriz, gazteek.

- **Markelen Lagunartiak zenbait ohar egiten ditu**

Lagunartiak jakinarazten du aurtengo kuota martxoan kobratuko duela; aurtun, 10 eurokoa. Iaz bazkide egin eta kontu korrante zenbakia eman zutenei kopuru hori kenduko zaie. Aurrerantzean ez dute ordainik eskura hartuko. Bazkide egiteko txartelak Aloña Mendi tabernan daude.

- **Drogamenpekotasunaren prebentzioaz hitzaldiak**

Drogamenpekotasunaren prebentzioaz hitzaldi-tailerrak egingo dituzte Agipad taldekoek hilaren 9an eta 10ean Elkar Hezi ikastetxeko Santa Marinako egoitzan, 18:30ean. 12-18 urte bitarteko gurasoendako da.

- **Hitzaldia eta gogojarduerak, frantziskotarren eskutik**

Arantzazuko frantziskotarrek erlijioen arteko elkarriketa- ren gaineko hitzaldia eta hirugarren adinekoendako gogojarduerak antolatu dituzte datozen egunotarako. Interesa dutenek izena eman behar dute aldezturitik 943 78 13 15 telefonoan.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Aretxabaletako Udaleri, eskerrik asko!

Aretxabaletatik gutuna jaso dugu:

“Eskerrik asko esan beharko genioke Aretxabaletako Udaleri, baldin eta horretarako merituak egin izan balitu. Tamalez, ordea, ezin dezakegu esan Herriko Plaza 7ko bizilagunak gustura gaudenik Udalaren jarrerarekin. Aratusteetako asteburuan zenbait ezezagunek txikizioak egin zituzten Aretxabaletan; tartean, gure eraikineko igogailuan etxafuego bat leherrarazi zuten eta kalte material ugari eragin zituzten. Horren aurrean, Udaleri jo genuen laguntza eske txikizioak ordaintzeko, baina gure ahalegina ustela izan zen. Kasurik ez ziguten egin eta gure ardura zela esan zigun Aretxabaletako Udalak. Hori bai, nahi izanez gero epaitegian gazteen kontrako salaketa jartzeko gomendatu ziguten. Ez dugu asmorik epaiketara joateko; izan ere, txikizioen arduradun zuzenak nortzuk diren ez dakigu. Aretxabaletako Udala ez da txikizioen arduradun zuzena, baina zeharkako arduraduna badela uste dugu. Etxafuegoak eskuetan eztanda egin izan balio ezezagunari zer gertatuko zen? Aretxabaletako Udalak uste al du gaztearen gurasoek ez ziotela ardura leporatuko? Udalak uste al du kasu horretan ez lukeela izango erantzukizunik? Aurretik aipatu ditudan ezezagunak Santa Ageda mutilak zirela guztiok dakigu herrian; zergatik ez diete dirua eskatzen jaia egin aurretik? Horrela, behintzat, txikizioak eraginez gero, Udalak izango luke dirua txikizio horiek ordaintzeko. Ez dugu ohituren kontra egingo, baina uste dugu Udalak baduela ardura, eta horrelako txikizioetan kargu hartu beharko lukeela. Badaezpada ere, horren guztiaren berri eman diogu Arartekoari. Ea, gutxienez, Iñigo Lamarkak arrazoia ematen digun”.

Herriko Plaza 7ko bizilagunak.

Sarean harrapatuta

Aspek Bergaran antolatuko ditu partiduak

Igandeetan Eibarko Astelena pilotalekuan jokatzeko partiduak Bergarako udal pilotalekura ekarriko ditu Aspek. *Pilotaren Katedrala*-ren errenta garestiegia omen delako hartu dute erabakia enpresako

arduradunek. Hilaren 13an jokatu da Bergarako lehen norgehiagoka. Asperen erabaki horren harira, eztabaida jarri dute *Goiena.net*-eko Bergarako atalean. Hemen dituzue iritzi batzuk.

DIRUA EZ DA GASTATU BEHAR PILOTALEKUAN

Eibarren Aspek 3.000 euro ordaintzen zituen pilotalekua erabiltzeko eta Bergaran 15 partidugatik Udalak 18.000 euro ordainduko dizkio. Ondo dago pilota Bergarara erakartzea baina ez dut uste normala denik 18.000 euro eta Udal Pilotalekuaren mantenua erabiltzea horretarako.

Gure dirua pilota partidu, udal aldizkari, super tranbia, obra gaizki kudeatu, super igerileku, epaitegietako plaza berri polit (diseinatu duena epaitu beharko genuke lehenengo) eta bestelako hanka-sartzeetan gastatzen jarraituko dugu. Aupa Bitoriano, oso ondo, hurrengo hauteskundeetan ere aurkeztu zaitez, mesedez.

Iker / www.goiena.net

EIBARRERA JOAN BEHARRIK EZ ORAIN

Ni ez nago Iker bezain enteratuta, baina ez zait gaizki iruditzen Bergaran jartzea Aspek pilota partiduak. Lehenago ere antolatu izan zituen, ez? Ni askotan joaten naiz (edo joaten nintzen) Eibarrera partiduak ikustera, eta orain Bergaran baldin badaude, askoz hobeto! Gainera ibarreko pilotari profesionalek askotan jokatzeko zuten Eibarren, eta

LASTER BUELTATUKO DIRA EIBARRERA

Lasai egon, etorriko dira bueltan Eibarrera eta.

Aspeko zenbait jabe Astelenakoak ere badira. Kontua da Eibarko Udaletik diru gehiago jaso nahi dutela, eta horregatik, zelo atakea edo emateko, Bergarara joatea pentsatu dute. "Bergarakoek gehiago maite gaituzte, baina gustura itzuliko gara zuekin, maiteak". Bergarako Udala horretarako erabiltzen ari dira, eta ez zaie jokaldia gaizki irtingo!

Gainera kontutan izan behar da Eibarko *El Diario Vasco*-n ere jo eta ke hasi dutela kanpaina, partiduak itzul daitezten.

Eibartarra / www.goiena.net

orain Bergaran ikustea gozame-
na izango da.

Pilix / www.goiena.net

PARTIDUAK BIETAN ANTOLATUKO DITUZTE

Nik entzun nuen irratan Aspeko bat berba egiten. Esan zuen asmoa dela laster Eibarko Udalarekin akordio bat lortzea eta hala, Ber-

garan eta Eibarren antolatzea partiduak. Egia esan, pena bat da *Pilotaren Katedral*-ean pilota partidurik ez jokatzeko. Ea laster bueltatzen diren partiduak Astelena pilotalekura. Eta Bergaran ere antolatzen badituzte partiduak, askoz hobeto!

Ni / www.goiena.net

ASPEK DIRUA EGIN NAHI DU BERGARAN

Aspe Eibarko enpresa da eta ez du nahi Eibartik joaterik. Eibarko pilotalekuaren prezioa jais-teko estrategia bat besterik ez da izan hau. Nola antolatuko ditu bada Bergaran bakarrik partiduak Aspe bezalako enpresa batek? Garbi dago Aspek ez daukala Bergaran inongo interesik. Diru gehixeago egin edo aurreztu nahi du, besterik ez.

Lopez / www.goiena.net

GUSTURA ASPEREN ERABAKIAREKIN

Ni albistearekin gustura-gustura geratu nintzen, eta orain hor irakurri ditudan irakurrita... hau da hau, dena negoziola! Hemen pilota partidu onak ikusiko genituelakoan nengoen ni. Laster joango dira berriro ere Eibarrera, eta Bergarako pilotalekua hor geratuko da, Bandak urtean bi kontzertu emateko.

Juan / www.goiena.net


Halaxe erantzun digute

Legeen bidez gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gauzatzeko dela uste duzu



MAITE BARREÑA |
ARRASATEKO EMAKUME SAILA

“Lege batek lagundu dezake baldin eta integrala eta sakona bada, hau da, neurriak hartzen laguntzen badu. Nik ez dut uste Jaur-laritzaren Berdinasun Legea halakoa denik. Lege egokiagoa egin behar zen. Aurrerapausoa da, baina ez da nahikoa. Aukera ezin hobea galdu dugu.”



LEONOR HERRERO |
ESKORIATZAKO AMUSKA TALDEA

“Emakumeak eta gizonaek ez gara sekula berdinak izango, berez desberdinak garelako. Kontua da lan baldintzetan, soldatan eta beste alor askotan gutxitu egiten gaituztela. Legeak ez zaizkigu gustatzen, baina legerik gabe ez dugu sekula aurrera egingo berdintasunaren bidean.”



SAGRARIO LOPEZ |
BILGUNE FEMINISTA

“Nik uste dut ezetz. Berdinasun Legea oso polita da eta asmo onez beterik dago, baina ekimen erre-
alak burutzeko oso baliabide gutxi aurreikusten ditu. Ez da borondate politikorik egon lege hau egiterakoan, aurrekonturik ere ez du aurreikusten! Hitz asko, baina ekimen gutxi nire ustez”.



MAITE ARISTEGI |
ABOKATUA

“Legeak beharrezkoak dira, baina neurri zehatzak eta mekanismo beharrezkoak ezarri behar dituzte. Bereizkeria arazo estrukturala da eta eragina izateko zeharkako legeak behar dira. Lege berri hau asmo onez beteriko urrats bat da, baina osatu eta hobetu beharrekoa”.

Egunkarietako harribitxiak

AEK, EUSKALDUNTZEAREN OINARRIA

Ia hiru hamarkadako historia du AEKk eta helduen alfabetatze eta euskalduntzean erreferente bilakatu da. Bestalde, egun gutxi barru, martxoaren 10ean, hain justu ere, Korrika 14 abiatuko da Orreagatik. Hori horrela, AEKren gaineko erreportajea jaso zuen *Zazpika* aldizkariak.

'Zazpika'
2005-03-06



HEROINAREN GOTORLEKU

Ameriketako Estatu Batuek inbaditu zutenetik, lo-belar sailak eta opiazeoen ekoizpena beldurgarri hazi dira Afganistanen. Nazio Batuen Erakundeak eman du horren berri, eta herrialdea berreraikitze lanak kolokan daudela erantsi du. Afganistani "narko-estatu" deitzen dioten adituak ugaritzen ari dira. Albistea jaso eta gaiaren nondik norakoak azaldu zituen atzo

Berria egunkariak hiru orrialdetako erreportajea. Nazio batuen Erakundearen arabera, AEBk 2001ean talibanen gobernua eraitsi ostean, lo-belar sailak Afganistango eskualde guztietara zabaldu dira, nahiz eta inbasioaren argudioetako bat izan talibanen gobernua lo-belarraren laborantzak emandako sosetan oinarritzen zela.

'Berria'
2005-03-06



Tira, tira...



Hautagaiak behar dira alderdi abertzaleko zerrenda osatzeko. Baloratuko da sevillanak jakitea, zezenzalea izatea eta gazpatxo zalea izatea.

Ripa 'Deia' | 2005-III-6

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

AKORDIOA GUZTION ARTEAN

Akordioak oinarri minimo batzuk planteatzen ditu Euskal Herria deitutako nazioaren gainean. Horregatik, atzo sinatutako akordiotik etor daitezkeen prozesuak kontsulta beharko du, herri honetako bizilagunek, hau da, hemen bizi eta lan egiten duten guztiek askatasuna izan dezaten euren etorkizuna nola antolatuko den erabakitzeke.

Editoriala
2005-03-06

'Berria'

OINARRIZKO AKORDIOA

Gatazkaren Konponbiderako Oinarritzko Hitzarmena, berez, garrantzitsua da, adostasuna bilatzeko ahaleginaren emaitza delako. Adostasuna posible da egoera gatazka tsua bizi dugun arren. Baina, agian, garrantzitsuena norabidea da: oinarritzko hitzarmen honek denon arteko akordioa du helburu.

Pello Urzelai
2005-03-06

'Deia'

NEGOZIAZIOARAKO OINARRIZKO AKORDIOA

(...) Hala, behin betiko hitzarmenean ez dadin egon garaile eta garaiturik eta herritar guztien eskubideak berma daitezzen, euren ideologia kontuan hartu barik. Hitzarmenak planteatzen dituen printzipio orokorrak inongo alderdi demokratikok ezin ditu albo batera laga - hitzarmena egiten parte hartu ez duten EAJk eta EBek bezala.

Editoriala
2005-03-06

'El Diaro Vasco'

GIZARTEAREN HITZA ONARTZEA

Urrats handia egin dugu. Gatazka konpontzeko bidean, bihurtu gaituzte bat izango dela uste dut. Etorkizunean eragileen artean izango diren elkarriketa eta negoziazioetan gaurko egunean erreferente bihurtuko da. Izan ere, hitzarmen irekia da, alegia, ahalik eta eragile gehienek parte har dezaten egindako txostena.

Rafa Diez
2005-03-06

Zorroztailea

Etsenplu barik predikatu



Irakaskuntza publikoan hizkuntza eskakizuna lortu ez duten irakasleen aferak eman du zeresanik (...). ELA, LAB eta EILAS sindikatuek aintzat hartzen dute irakasle horien lan egoera, baina gogorarazi nahi izan dute sare publikotik ez direla aterako, egonkortasuna galduko duten arren (...). Gauza bat argi daukate sindikatuek: irakasleen euskalduntzea geldiezina dela.

'Berria' | 2005-03-06

niaz egin behar izatea. Alderdi horietako berberetako ordezkari eta kargu garrantzitsu askok ere ez dakite euskaraz. Ez lirakete etxea garbitzetik hasi beharko besteenak miatu aurretik? Zergatik ez diete euren kargu eta ordezkarietara egonkortasuna kentzen hari eta euskaraz ikasi arte, adibidez? Badakit hezkuntzak jende askorengan eragina duela eta garrantzitsua dela irakasleek euskaraz egitea; baina badakit gobernatzeko gaituztenak koherentziaren isla izan behar dutela ere.

Zerbaitetan sinisten badugu, arau hori gure portaerarekin erakusten hasi behar dugu, ino-ri kontuak eskatu aurretik. Anima daitezela gure agintariak, bada, hezkuntzako lelo zahar hau aplikatzen: etsenpluaren bidez predikatu.

Leire Kortabarria

Euskararen normalizazioa geldiezina izan bedi, bai. Baina bide horretan, euskarari zangoztraba egiten diote askok; batzuetan, gutxien espero dugunak. Horren azken adibidea gure agintarietara eman digute, irakasle horiek lan barik uzteko erabakiarekin, euskara, guztion adostasunerako plaza egin beharrean, gatazkarako arrazoi bihurtuaz. Jendeak euskara bere sentitu behar du, euskara ikastearen kontzientzia hartu behar du. Horretarako lagundu egin behar zaio, ez mehatxatu edo lanposturik gabe utzi.

Eta, tristuraz gain, haserrean pizten dit boterean daudenen koherentzia faltak. Hamaika aldiz tokatu zaigu alderdi abertzale jakin batek gobernatutako erakunde publikoetara jotzea eta hango arduradunekin gatzela-

"Jendeak euskara bere sentitu behar du. Horretarako lagundu egin behar zaio, ez mehatxatu eta lanposturik gabe utzi"

"Anima daitezela gure agintariak, bada, hezkuntzako lelo zahar hau aplikatzen: etsenpluaren bidez predikatu"

KIROLA

- Gipuzkoako teknifikazio eskolakoek Antzuolan egin zuten pilotan | 20
- Unai Zunzunegi trialsineko Gipuzkoako txapelketan garaile | 20



Jose Luis Mendilibar
Eibarreko
entrenatzailearekin
jardun dugu | 21

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

ATHLETIC

3-1

ALBACETE

Athletic | Aranzubia, Javi Gonzalez, Lacruz, Luis Prieto, Casas (Guerrero 45. min.), Gurpegi, Orbaiz, Iraola, Etxeberria (Solabarrieta 83. min.), Ezkerro eta Urzaiz (Llorente 61. min.).

Albacete | Valbuena, Gaspar, Mingo, Peña, Santi (Montiel 67. min.), Viaud, Redondo, Ruben Castro, Pablo Garcia (Mikel 73. min.), David Sanchez (Marc Gonzalez 56. min.) eta Pacheco.

Golak: | 0-1 Ruben Castro (12. minutuan), 1-1 Ezkerro (40. minutuan), 2-1 Lacruz (70. minutuan), 3-1 Guerrero (93. minutuan).

Epailea | Rubinos Perez. Zortzi txartel hori ateratu zituen. Marrazainak bi gol ezeztatu zizkion Athletici, baina biak ondo ezeztatuak izan ziren. Hala ere, Lacruzi aterako txartela ulertezina izan zen. Gainera, falta arriskutsu bat suposatu zuen.

Bestelakoak | Beste batzuetan baino zaletu gutxiago egon zen San Mamesen.

Bikain

Ezkerro

Oso gustura jokatu zuen ezker hegalek errioxarrak. Athleticen lehenengo gola sartzeaz gain, behin baino gehiagotan alde egin zion bere defentsari eta aukera asko sortu zituen.

Kaskar

Javi Gonzalez

Pase luze gehiegi erabili zituen, akats ugari egin zituen eta txartel gorria merezi izan zuen jokaldia egin zuen: Albaceteko jokalaria bat lurrean zegoela bularrean zapaldu zuen.

Esandakoak

"Hiru puntu garrantzitsu lortu ditugu eta gainera ni oso pozik nago taldeko bigarren gola sartu dudalako".

MARI LACRUZ |
JOKALARIA

"Lehenago espero nuen 100. gola sartzea eta ospatzeko modu bitxi bat erabili nahi nuen eta kamiseta izan da".

JULEN GUERRERO |
JOKALARIA



ARGAZKI PRESS

Guerreroren golak beti izan dira oso txalotzak San Mamesen, baina atzokoak bazuen berezitasun bat: Athleticekin sartzen zuen 100. gola zen.

ATHLETIC | GARAIPEAK LASAITASUNA EKARRIKO DIO TALDEARI

Athleticek Europa gertuago dauka atzo irabazi eta gero



Jon Unamuno

Aste korapilatsua izan da talde zuri-gorriarendako. Europari agur esan ostean, harritzekoa izan zen albistea etorri zen: Valverde denboraldi amaieran taldea lagako duela. Horrela, garaipeak berriro barealdia ekarriko lukeela uste genuen, baina

Estrategiako hiru jokaldietan sartu zituzten golak zuri-gorriek. Aurreko astean Europatik kanporatuak izan ziren eta orain berriro ere Europara begira jartzen dira zuri-gorriak

hori gauzatu beharra zegoen. Gaizki hasi zen partidua. Izan ere, Ruben Castrok 0-1 markagailuan ezarri zuen 12. minutuan. Erraz jokatu zuen Albacetek lehenengo zatian eta asko kostatu zitzaion Athletici aukerak sortzea. Estrategiako jokaldi batean etorri zen

Ezkerroren gola 40. minutuan, hain zuzen. Atsedendia ideiak argitzeko balio izan zuen.

Iraola atzeratu egin zen eta Javi Gonzalez ezker hegalean kokatu zen. Casas aulkitxoan lagata, honen ordez Guerrero irten zen. Zelai erdiaren gidari-

tza hartu zuen eta Etxeberria erditik eskuin hegalean pasatu zen, Valverde jokalaria euren lekuetan kokatu zituen. Baloia jabe izan arren, aukerak sortzea kostatzen zitzaion. Kornez etorri zen bigarren gola.

PARTIDUA BOROBIITZEKO GUERREROREN GOLA

Albacetek ez zuen aukera garbirik izan eta gainera Athleticen partidua bukatzen jakin zuen. Partidua amaitzeaz zegoela etorri zen jokaldi magikoa. Area ertzean falta baten bidez Guerrero bere 100. gola sartu zuen.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZERGATIK USTE DUZU VALVERDEK EZ DUELA ATHLETICEN JARRAITUKO?



MIGUEL ANGEL ETA IKER | BERGARA

“Athleticek egin dion eskaintza ekonomikoa nahiko baxua dela uste dugu”

“Valverde azken aldian kritika asko jaso ditu, eta gure ustez, horrek, normala den moduan entrenatzailea nasatzera eraman du. Gainera, Athleticek egin dion eskaintza ekonomikoa nahiko baxua dela uste dugu”.



IÑIGO | OÑATI

“Lamikizekin gauzak ez daude ondo”

UEFAko kanporaketaren ondoren animoak jaitzi zaizkio. Gainera, Lamikizekin gauzak ez daude ondo eta onena egin du”.



ANDONI ETA JON | ARRASATE

“Bere esanetan Athleticek aldaketa bat behar du, baina gure ustez diruagatik da”

“Bere esanetan Athleticek aldaketa bat behar du eta bera ez da gai horretarako, baina gure ustez, diruagatik da. Athleticek gehiago ordaindu beharko lioke. Gutxienez milioi bat euro urtean”.



ANTTON, ANE ETA JONE | OÑATI

“Seguruenik, beste talde batek diru gehiago eskainiko zion”

“Gure ustez ez dago arrazoi pertsonalik. Seguruenik, beste talde batek diru gehiago eskeiniko zion eta horregatik ez du berritu izan nahi. Arrazoi hori izan behar da, bestela ez dago bere erabakia ulertzerik”.



AMAIA, MAITANE ETA MARINA | BERGARA

“Gure ustez, beste talde bat dago atzetik, eta ez du esan nahi. Berritzeagatik eskaini dioten diru kopurua asko da gure ustez, eta normalena kontratua berritzea izango litzateke. Ez dugu ulertzen zergatik esan dion ezetz”.

Reala

Defentsako hutsek ekarri zuten hiru puntuak Mallorcan gelditzea

Realak partiduko lehen 20 minutuetan bakarrik jokatu zuen; galduta ibili zen handik aurrera



Jokin Etxebarria

Realak ezin die jarraipenik eman bolada onei. Hori ematen du behintzat. Eta hori erakutsi zuen atzo Son Moixen.

Ezin esan daiteke merezitako emaitza ez denik. Futbolearen 20 minutu bakarrik jokatu duen talde batek ez luke irabazi behar -batzuetan Real Madrilek horrela irabazten duen arren-, eta atzo, Realak lehen 20 minutuetan bakarrik egin zuen futbolearen.

Denok sekulako poztasuna hartu genuen seigarren minuturako Aranburuk talde donostiarra markagailuan aurretik jarri zuenean. Gol polita izan zen gainera. Baina atzean, tinko eutsi beharrean, opariak egiten ibiltzen gara. Eta aurkaria tontoa ez baldin bada, horrelakoak aprobetxatu egiten ditu, noski. Egia da, lehen golean Romero aurrelariak eskuarekin kontrolatu zuela baloia. Baina, ezin daitekeena onartu da aurrelariak baloia horrela jasotzea. Are eta gutxiago bigarren golean. Agian, jokoz kanpo zegoen aurrelaria, baina lehen golaren kalkoa izan zen bigarren hau. Esakune batek dio gizakia dela harri berean birritan estropezu egiten duen animalia bakarra; bada, ederki erakutsi zuen atzokoan hori Realaren defentsak.

Eskerrak aurretik Moyak, Mallorcako atezainak, egundoko oparia egin zion Gari Urangari, bestela...

Realaren bigarren zatia negargarria izan zen. Ez bigarren zatia bakarrik, baita lehen zatiko azken 25 minutuak ere. Ez zuten ezer egin. Hobeto esanda, gauza bakarra egin zuten: Mallorcako aurrelariak hirugarren gola oparitu.

JOKOZ KANPOKORIK EZ

Datu bitxi bezala aipatu behar da Realak ez zela partidua guztian jokoz kanpokoan jausi. Agian, Kovacevick jokatu ez zuelako izan zen, baina egia esan, biga-

MALLORCA
3-2
REALA

Mallorca | Moya, Campano, Ballesteros, Ramis, Poli, De los Santos, Arango, Luis Garcia, Melo (Cortes 85. min.), Tuni (Peyra 70. min.) eta Romeo (Correa 77. min.).

Reala | Riesgo, Lopez Rekarte, Labaka, Karpin, Aranburu, Xabi Prieto (Mladenovic 70. min.), Mikel Alonso (Barkero 77. min.), Luiz Alberto, De Paula eta Gari Uranga.

Golak: 0-1 Aranburu. 1-1 Romeo. 1-2 Gari Uranga. 2-2 Luis Garcia. 3-2 Romeo.

Epailea: Urdiano Mallenco. Ez zen gaizki egon, baina De los Santosek txartelen bat merezi zuen.

Bikain

KARPIN

Taldeak besoak jaitsi zituenean, 20. minutuan, bera izan zen presionatu, eta baloia jokatu zen saiatu zen bakarra. Pena da inork lagundu ez izana.

Kaskar

LABAKA

Mallorcak sartu zituen hiru goletan huts egin zuen. Batez ere hirugarrenean. Opari galanta egin zion Romeo aurrelariari.

rrren zatian egindako eraso jokorekin, ez da harriztekoa jokoz kanpoetan ez jaustea, zelai erditiak aurrera ez zen eta pasatu talde txuri-urdina.

Egia esan, Mallorcak ere ez zuen gauza gehiegirik egin, baina emaitzari eusten ederki jakin zuen. Hala ere, partidua zatirra ikusi zen bigarren zatian. Gezurra dirudi hau esatea lehen 25 minutuak nolakoak izan ziren ikusita. Baina partidua eritimoa jaitsi zenean, ez talde batek ez eta besteak ere, ez zuten jakin izan eritimo hori biziagotzen.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Athletic-Albacete	3-1
Deportivo-Malaga	1-0
Zaragoza-Racing	1-0
Mallorca-Reala	3-2
Numantzia-Vila-real	1-1
Espanyol-Levante	2-1
Betis-Getafe	2-2
Osasuna-Bartzelona	0-1
Valentzia-Real Madril	1-1
At. Madril-Sevilla	3-0

HURRENGOAK

Bartzelona-Athletic
Malaga-Betis
Albacete-Deportivo
Vila-real-Espanyol
Getafe-Real Madril
At. Madril-Valentzia
Sevilla-Zaragoza
Racing-Mallorca
Levante-Osasuna
Reala-Numantzia

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	62	27	19	3	5	51	18
2. Real Madril	54	27	17	7	3	47	23
3. Espanyol	45	27	13	8	6	34	29
4. Vila-real	44	27	12	7	8	44	24
5. Valentzia	43	27	11	6	10	40	28
6. Sevilla	43	27	12	8	7	32	32
7. Betis	42	27	11	7	9	43	35
8. At. Madril	39	27	11	10	6	31	25
9. Deportivo	39	27	9	6	12	37	35
10. Athletic	38	26	10	8	8	42	34
11. Zaragoza	35	27	10	12	5	32	40
12. Malaga	34	27	10	13	4	26	34
13. Reala	32	27	9	13	5	34	39
14. Levante	31	27	8	12	7	29	40
15. Osasuna	31	27	8	12	7	35	47
16. Getafe	29	26	7	11	8	25	30
17. Racing	28	27	7	13	7	26	40
18. Albacete	24	27	5	13	9	25	39
19. Mallorca	24	27	6	15	6	28	45
20. Numantzia	20	27	4	15	8	18	42



Kiniepla

KINIELA

1. Numantzia-Vila-real	X
2. Mallorca-Reala	1
3. Zaragoza-Racing	1
4. At. Madril-Sevilla	1
5. Valentzia-R. Madril	X
6. Betis-Getafe	X
7. Deportivo-Malaga	1
8. Athletic-Albacete	1
9. Osasuna-Bartzelona	1
10. Espanyol-Levante	1
11. Xerez-Valladolid	X
12. Alaves-Celta	2
13. Recreativo-Cadiz	X
14. Lleida-Cordoba	2

Atzean tinko eutsi beharrean, opariak egiten ibiltzen da Reala

Futbolearen 20 minutu bakarrik egiten duen talde batek ezin du partidurik irabazi

PREFERENTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

Aloñak erasoan izandako aukerak aprobetxatu zituen, eta derbia etxean gelditu zen.

Aloñak ederki aprobetxatu zituen izandako aukerak

ALOÑA MENDI

4-1

MONDRA

Aloña Mendi | Elgarresta, Losada, Barrena, Martin (Astola, 45. min.), Olalde, Astigarraga (Aramendi, 59. min.), Garai, Sanchez, I. Arregi (Garmendia, 61. min.) Idigoras (U. Arregi, 65. min.) Jeta Biain (Zubia, 78. min.).

Mondra | Mondragon, Torres (Illart, 45. min.), Gonzalez, Mercader, Laspiur, Rueda (Larrañaga, 65. min.), Garmendia (Lopez, 56. min.), Loiti, Garay, Bereziartua eta Gonzalez.

Golak: 1-0 Garai. 2-0 Idigoras. 3-0 Astigarraga. 4-0 Aramendi. 4-1 Loiti.

Epailea: Labaka jauna. Falta gehiegi adierazi zituen.

Jasone Zabala

Hasiera polita izan zuen atzo Azkoagainen jokaturako derbiak. Mondrak eta Aloñak bi gauza ezberdin zituzten jokoan: lehenengoek, goian mantentzea eta bigarrenek, sailkapeneko beheko zuloari behin betiko agur esaten hastea.

Lehen zatian, Mondra hasi zen aurrera joaten eta aukerak sortzen. Aloñako atezainak, lan egin behar izan zuen hasierako minutuetan geldiketa on bat edo beste eginez. Aloña Mondraren areara heldu ezinik zebilen, baina 36. minutuan, Aloñak izandako kórner jaurtiketa baten ondorioz, Jokin Garaik gol polita sartu zuen.

Momentu hartan, partidua aldatu egin zen, eta Aloña izan zen aukerak sortzen hasi zena. Horrela, Mondrarentzat erreakzionatzeko denborarik gabe, 42.

minutuan bigarrena egin zuen Aloñak, Roberto Idigorasen bitartez. Mondraren atzealdean urduritasuna nabari zen. Lehen zatian amaieran beraz, Aloña hirugarrenaren bila eta Mondra ezinean.

BORROKAREN FRUITUAK

Bigarren zatian, Aloñak borrokan jarraitu zuen, eta 58. minutuan hirugarren gola egin zuen, Jon Astigarragak amaitutako

kontraeraso bikain batean. Mondrak nahi bai, baina ezin zuen, eta atzealdean zulo asko uzten ari zen Josu Zubiaren taldea.

Partiduak bide bera jarraitu zuen amaiera arte. Aloña aurrera begira kontraerasoen zain eta Mondra ezinean. Kontraeraso hauetako batean laugarrena egin zuen Aloñak, Iker Aramendiren bitartez; minutu bat beranduago Loitik egin zuen arrasatearren gol bakarra.

• HORRELA IKUSI DUTE PROTAGONISTEK



JULEN BARRENA | ALOÑA MENDI

"Lehenengo gola izan da erabakigarria garaipenean"

"Partidu gogorra izan da, oso borrokatua. Lan asko egin behar izan dugu partidua guztian zehar, baina merezimendu osoz lortutako garaipena dela uste dut, eta garaipen garrantzitsua gainera, bestela, berriz ere beheko zuloan sartzeko arriskua geneukan. Guk, lehen gola sartzeari erabakigarria izan dela uste dut".



IKER LASPIUR | MONDRA

"Hasierako aukerak ez ditugu aprobetxatu"

"Lehen zatian hasieran hiru aukera argi izan ditugu, baina ez dugu golik egin. Beraiek ederki aprobetxatu dituzte izandako aukerak. Gainera, zelai honetan bi goleko emaitzari buelta ematea oso zaila izaten da. Amaiera aldera, erasora jo dugu markagailua berdintzeko asmoz, baina ezin izan da ezer egin azkenean".

Partidu berdindu batean, emaitzarik justuena

A.G.

ZARAUTZ

0-0

UDA

Zarautz | Arregi, Seguro, Errasti, Juan Pablo (Azpitarte 71. min.), Apalategi, Ruiz, Fernandez, Igor (Ortega 45. min.), Lasa (Larrañaga 45. min.), Belloso eta Arruti (Martinez 45. min.).

UDA | Gaizka, Raul, Oxel, Unai, Eriko, Alvaro, Canas (Orueta 60. min.) (Andoni 70. min.), Juan (Badillo 67. min.), Arriaga (Kepa 85. min.), Haritz eta Imanol (Joseba 83. min.).

Epailea: Martinez Roman jauna. Ondo ibili zen, nahiz eta ez zuen UDAREN aldeko penalti nahiko argi bat ikusi.

Ez zuen partidua erraza izan UDAREN atzo. Laugarrenaren zelaian jokatu beharra zuen, baina azken egunetako hobekuntza igartzen hasi da Aretxabaletako taldean, eta partidua txukuna egin zuten Felix Recioeren mutilek.

Partidua oso berdindua izan zen, aukera gutxikoa, eta aukerok, gainera, azken minutuetan heldu ziren. Partidua amaitzeko bost minuturen faltan, penalti nahiko argia egin zioten UDAREN aurrelari bati, baina epaileak ez zuen ikusi. Bestalde, zarautzarrak, bi kórnerretan arriskua sortu zuten. Felix Recioeren esanetan "emaitza justua izan da, eta gutxienez puntu bat lortu dugu".



AITOR LIZARRALDE

Zelaiaren egoera toki batzuetan ez zen ona eta baloi luzeekin jokatu zuten.

Bigarren zatian irabazi zuten Oiartzunen kontra

BERGARA

4-1

OIARTZUN

Bergara | Markel, Elkorobereziabar (Zankada 72. min.), Ormaetxea, A. Berraondo, Lete, Oskar (Alejandro 83. min.), Loiola (San Vicente 64. min.), Alzola (Otero 77. min.), Imanol, Zubikarai eta Garin (U. Agirre 64. min.).

Oiartzun | Amets, Asier, Gorka (Fernando 74. min.), Arkaitz, Aritz, Mikel (Alain 28. min.), Aitzol, Ibon (Axier 74. min.), Beñat, Dabid eta Endika.

Golak: 0-1 Dabid. 1-1 Oskar. 2-1 Zubikarai. 3-1 San Vicente. 4-1 San Vicente.

Epailea: Carlos Cuadrado.

bakarra izan zezakeela pentsarazten zuen eta halaxe izan zen: Bergararen garaipena. 3. minutuan Oiartzunek bere gola sartu zuen, baina Bergarak bere joko egiten jarraitu zuen. Aukera mordoa sortu ostean, partiduko onena izan zen Oskarrek partidua berdindu zuen 20. minutuan. Lehenengo zatian gelditzen ziren minutuek ezertarako ez zuten balio izan.

SAN VICENTEK BI GOL

Bigarren zatian oiartzuarrak jokalaria bat gutxiagorekin gelditu ziren eta Fernando Oregiren mutilek aukera asko izan zituzten. Lehenengo Zubikarai eta beste bitan San Vicentek sartu zituzten Bergararren beste hiru golak. Aipatzekoa da azken honen agerpena. Denbora luze jokatu gabe egon ondoren, bi golekin estreinatzen zen. Ea datorren astean EHUREN aurka irabazten duten.

Jon Unamuno

Entrenatzaile berria izateak eta sailkapeneko azkenaren kontra jokatzeak, partidua amaiera

• F-8 NESKAK



AITOR LIZARRALDE

BERGARA 0 - AÑORGA 7

Ez zen kolorerik egon atzoko partiduan. Añorga taldeak erakutsi zuen talde sendoa dela, bai aurrean eta baita atzean ere, eta bergararrak noraezean ibili ziren partidu guztian. Lehen zatian, hasiera hasieratik agindu zuten kanpotarrek, eta atse-

denaldira 0-4ko emaitzaz joan ziren. Bigarren zatian, etxekoek aukera batzuk izan zituzten, baina ez zuten amaitzen jakin izan; kontraerasoan beste hiru gol sartu zizkieten etxekoei, eta horrela, garaipena Añorga aldera joan zen.

• 2. MAILAKO GAZTEAK

Garaipen bikaina lortu zuen Antzuolak Beasainen

BEASAIN	0-2
ANTZUOLA	

A.G.

Partidu bikaina jokatu zuten pasa den zapatuan Antzuolak gazteek Beasainen. Mailaz igotzeko borroka horretan ari dira bi taldeak; Antzuola sailkapenean lehena da, eta beasaindarrak bigarren postuan daude.

Lehen zatia nahiko berdinduta joan zen, baina Antzuolak, lehen gola egin zuen korner jaurtiketa baten bitartez. Golegilea Ibon Urtzelai izan zen. Aipatu, lehen zatiaren amaieran, Antzuola hamar jokalarirekin gelditu zela.

Bigarren zatia hasi eta berehala, bosgarren minutuan egin dako kontraeraso batean, bigarren gola egin zuten antzuolarrak. Beasain, orduan, erasora joan zen behin eta berriz golen bat egiteko nahiaz, baina antzuolarrak lan bikaina egin zuten, batez ere Eneko Mujika atezainak. Azkenean garaipen garrantzitsua Antzuola aldera.

• OHOREZKO GAZTEAK

Luzapeneko seigarren minutuan etorri zen bigarrena

MONDRA	1-2
ALDAPETARRAK	

Jokin Etxebarria

Partidu oso arraroa izan zen zapatuan Mondrako gazteek jokatuakoa. Zelaia egoera kaxkarrean zegoen, eta horrek futbol gutxi ikustea ekarri zuen. Baina futbolaren faltan emozioa izan genuen, eta batzuetan zirkoa ematen zuen ikuskizuna ere ikusi ahal izan genuen, batez ere epailearen aldetik.

Etxeko taldea nagusi izan zen partidu guztian zehar, baina izandako aukera horietatik guztietatik bakararra sartu zuten. Donostiarrak aldiz, hiru aldiz heldu ziren beste atera eta bi gol egin zituzten.

Gainera, etxekoek epailearekin burua galdu zuten eta ez ziren markagailuari buelta emateko gauza izan. Aipatzekoa da, epailearen lana. Bi taldeek 15 falta baino gutxiago eginda, 19 txartel hori atera zituen, eta horrez gain talde bakoitzetik bi jokalarikaleratu zituen.

• OHOREZKO KADETEAK

Azken minutuan berdindu zieten partidua Bergarakoei

BERGARA	2-2
ALDAPETARRAK	

Jon Unamuno

Aldapetarrak nagusi izan zen partiduan zehar eta azkeneko minutuetan lortutako golak justizia egin zion zelaian ikusitakoari. Fisiko aldetik gogorra goak ziren donostiarrak eta, ondorioz, zelai erdia euren izan zen. 20. minuturako aurreratu ziren kanpotarrak, baina korner baten ostean, Antxon bidez, partidua berdindu zuten bergararrak 15 minutu beranduago. Lehenengo zatian, dagoeneko, kanpotarren nagusitasuna ikusi zen zelaian.

Bigarren zatia lehena ildo bera jarraitu zuen eta asko kostatu zitzaion Bergarari bere jokoa egitea. Hala ere, aukera batzuk izan zituzten eta halako batean Diegok bigarren gola sartu zuen. Aldapetarrak jokalaririk aurreratu egin ziren. Bi taldeek aukerak sortu zituzten, baina gol bakararra egon zen, berdinketaren gola hain zuzen ere.



Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

LEHEN PARTIDUA BERGARAREKIN ETA BI GOL

Bergarak ezin zuen huts egin Oartzunen aurkako partiduan eta hala xe izan zen. Aulkian Oregi entrenatzaile berriarekin erasora jokatu behar du hemendik aurrera etxeko taldeak eta defentsan sendo aritu, beheko zulotik atera nahi baldin badu. Horretarako aurrealdeari gatz pixka bat emango dion jokalaririk bat behar zuen, eta Oregik aurkitu egin du: futbola utzita zuen Gorka San Vicente, hain zuzen ere. Taldearekin lehen partidua eta bi gol. Ea horrela jarraitzen duen.


Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA			EMAITZAK		BESTELAKOAK	
Sailkapena	Punt.	J.				
1. Tolosa	56	27	Zarautz-Aretxabaleta	0-0	GAZTEEN OHOREZKO LIGA	
2. EHU	55	27	Zestoa-Pasaia	1-1	Aretxabaleta-Anaitasuna	3-1
3. Ordizia	54	27	Aloña Mendi-Mondra	4-1	Mondra-Aldapetarrak	1-2
4. Zarautz	47	27	Tolosa-Beti Gazte	4-1	LEHEN MAILAKO GAZTEAK	
5. Real Union	45	27	Anaitasuna-Orioko	2-1	Amara Berri-Bergara	1-3
6. Trintxerpe	42	27	Real Union-Urola	3-2	Urki-Arrasate	3-1
7. Pasaia	37	27	Trintxerpe-Ordizia	1-1	Amaikak Bat-Aretxabale. B Ariz.	9-2
8. Touring	35	27	Hondarribia-Mutriku	2-2	BIGARREN MAILAKO GAZTEAK	
9. Mondra	35	26	Bergara-Oartzun	4-1	Oartzun-Bergara	1-3
10. Zestoa	34	27	Hurrengoak		Beasain-Antzuola	0-2
11. Mutriku	33	26	Aretxabaleta-Touring		KADETEEN OHOREZKO MAILA	
12. Anaitasuna	33	27	Pasaia-Zarautz		Baskonia-Aloña Mendi	0-1
13. Orioko	32	27	Mondra-Zestoa		Bergara-Aldapetarrak	2-2
14. Hondarribia	32	26	Beti Gazte-Aloña Mendi		Arrasate-Sto. Tomas Lizeoa	2-3
15. Aloña Mendi	32	27	Orioko-Tolosa		LEHEN MAILAKO KADETEAK	
16. Aretxabaleta	31	27	Urola-Anaitasuna		UDA Arizmendi-Amaikak Bat	6-2
17. Bergara	28	27	Ordizia-Real Union		BIGARREN MAILAKO KADETEAK	
18. Urola	27	26	Mutriku-Trintxerpe		Ikasberri-UDA Arizmendi	0-1
19. Beti Gazte	26	27	Oartzun-Hondarribia		Bergara-Zestoa	3-1
20. Oartzun	15	27	Bergara-EHU		Antzuola-Eibartarrak	b.b.
					EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)	
					Tolosa-Almen Aretxabal.	2-0
					EMAKUMEEN F-8 LIGA	
					Bergara-Añorga	0-7
					Antzuola-Elgoibar	b.b.
					Almen Arizmendi-Urki	b.b.
					Almen Aretxabaleta-Urola	b.b.
					GAZTEEN EUSKAL LIGA	
					INFANTIL OHOREZKO MAILA	
					Añorga-Aretxabaleta Arizmendi	4-1
					INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)	
					Trintxerpe-Bergara	1-4
					Kostkas-Aloña Mendi	0-0
					INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)	
					Arrasate-Eibartarrak	b.b.
					INFANTIL TXIKI (KOPA)	
					UDA Arizmendi-Hernani	3-2
					INFANTIL F-8	
					Arizmendi C-Baskonia	5-6
					Arizmendi B-Bergara	b.b.
					Aloña M.-Zumaia	2-1
					Antzuola-Ordizia	b.b.
					ALEBINAK	
					Lagun Onak-Aretxabaleta	4-1
					Eibar-Bergara	3-1
					Arrasate-Elgoibar	0-3
					Aloña Mendi-Urko	0-1
					BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)	
					Sailkapena	Emaitzak
					Punt.	J.
1. La Salle	14	6	Antzuola-Amaroz			b.b.
2. Lasarte Oria	11	6	Zestoa-Donibane			4-2
3. Urki	9	6	Lasarte Oria-La Salle			1-1
4. Amaro	8	5	Urki			Atsedena
5. Antzuola	7	5	Hurrengoak			
6. Zestoa	6	6	Urki-Lasarte Oria			
7. Donibane	0	6	Antzuola-Donibane			
			Amaroz-La Salle			
			Zestoa			Atsedena

• SENIOR NESKAK

Defentsak eta kontraerasoek Verkol Aloña jipoitu zuten

Sailkapenean lehen postuan daude Ermuko neskek eta nagusi izan ziren kantxan



AITOR LIZARRALDE

Sherezadek baloi loratu bidez lortutako golak Zubikoako zaleen txalo zaparrada lortu zuten.

VERKOL ALOÑA

16-26

ERMUA

Verkol Aloña | Maialen, Mireia, Nagore (1), Itxaso (1), Oiarz (3), Ainhoa U. (6), Sherezade (2), Maren, Ainhoa D. (1), Cristina, Saioa, Erika (2), Eneritz eta Olatz.

Ermua | Olatz (5), Sonia (3), Nagore (5), M. Carmen (1), Jesica (1), Monica (2), Ixone (5), Sandra (2), Naiara, Ana, Jasone eta Amaia (2).

Markagailua atsedendian: 8-14.

Epailea: Gonzalo Chueza.

Jon Unamuno

Ez zen posible izan. Ermuko taldeari irabaztea oso zaila da, baina Verkoleko neskek bazuten hori lortzeko ametsa. Hala ere, kantxan ametsak amets direla ikusi zen eta errealtatea, batzuetan, gordina. Ermuko taldeak bazekien defentsan oso botere-tsuak zirela eta lapurtzen zituz-

ten baloiekin kontraerasoan min asko egin zezaketela. Verkolekoak ere konturatuta zeuden kanpokoan jokoaz, baina ezin izan zuten hori saihesteko ezer egin. Ermuko defentsa gogor aritu zen eta ondorioz etxeko jaurtiketarik gehienak hegaletatik egindakoak izan ziren. Horrelakoetan gola sartzea zaila izaten denez, markagailuan gero eta abantaila han-

diagoa lortu zuten kanpoko taldeak.

Esperientziak ere asko eragiten du taldeetan, eta Ermuko neskek esperientzia sobera dute. Askok 7 urte daramatzate elkarrekin jokatzeko eta ia inertziak jokatzeko dutela esan daiteke. Nagore kontraerasoan korrika irteten zenean, taldekideek bazekiten bere abiadura aprobe-txa-

tuz atezainaren aurrean bakarrik kokatuko zela.

HELBURUA LEHENENGO LAUREN ARTEAN GELDITZEA

Halaxe adierazi zuen Benitok: "nahiz eta igoera fasean ezin sartu, motibazioa mantentzeko garrantzitsua da helburu bat izatea". Ea ba helburua lortuta, amaiera txukuna izaten duten.

• EUSKADIKO TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

BERGARA 27 - PORTUGALETE 29

Sailkapenean azken aurreko doanaren aurka ere ezin Bergarak. Partidua ez zen ondo hasi etxeko taldearentzat, eta markagailuan atetik joan ziren ia partidu guztian. Etxekoek ikusten zuten garaipena erraz lortu zezaketela, eta irabazi nahi horrek huts egite asko ekarri zituen. Bigarren zatian, joko hobetu zuten bergarrek, eta partidu berdintzea lortu zuten. Baina, azken minutuetan, irabazteko beldurra sartu zitzaizen etxekoei, eta ezin izan zuten bigarren garaipena lortu bergarrek.

• BIGARREN TERRITORIALA



AITOR LIZARRALDE

ARRASATE 21 - ELGOIBAR 22

Arrasateko taldeak ez zeukan ezer jokoa zapatuko partiduan. Bai ordea, Elgoibarkoak. Izan ere, talde elgoibartarrak partidua irabazita mailaz igotzeko aukera zuen. Hala ere, partidua oso parekatua izan zen. Parekatua eta borrokatua. Epaileak, gainera, ez zuen ezertan lagundu borroka hori leuntzeko. Kanpokoak markagailuan aurretik ibili ziren partidu osoan, baina abantaila gutxiarekin, eta horrek emozioa ekarri zuen harmailetara. Azkenean baina, etxekoek ezin izan zituzten elgoibartarrak garaitu.

• LEHEN NAZIONALA

27-28 irabazi arerio zuzen baten kontra

A.G.

Zaragozako Maristas taldea arerio zuzena du Arrikru-tzek. Partiduan Kokostegi eta Fertzuren seriotasuna atzean eta aurrean Rafak penalti guztiak sartzea, funtsezkoak izan ziren zulotik irteteko garai-pena lortzerako orduan.

• LEHEN TERRITORIALA

Lehenaren aurka 26-30 irabazi AGRk

Asteleheneko Goienkaria

Kantxara tentsiorik gabe irten ziren Irunekoak. Arrasatekoek berriz presiorik gabe irten eta partidu oso ona jokatu zuten. Aipatzekoak dira Eraña atezainaren geldituak. Arrasatekoak sailkatu dira igoera faserako.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO ESPAINIARIKO LIGA
Maristas-Arrikruz Oñati 27-28

SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA
Bergara-Portugalete 27-29

LEHEN TERRITORIALA
Bidasoa Irun-AGR Arrasate 26-30

BIGARREN TERRITORIALA
Arrasate-Elgoibar 21-22
Aloña Mendi-Beasain 29-21
Bergara-Pulpo 27-28

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Verkol Aloña-Ermua 16-26

GAZTE MAILAKO MUTILAK
Elgoibar-Gatz Museoa Jak. 22-21

GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Kukullaga-Verkol Aloña 32-14

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Arrasate-Arrate 1-33
Bergara-Zahara Kafetegia 25-17

KADETE MAILAKO MUTILAK
Aloña Mendi-Egia Juggers 34-24
Arrate-Bergara 33-26

KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Kukullaga-Verkol Aloña 34-19

INFANTIL MUTILAK
BKL/OKE-Arrasate 22-20
Oarsoalde-Aloña Mendi 24-22

INFANTIL NESKAK
Leizaran-Aloña Mendi 9-18

• SENIOR MAILA

Huts askoko partiduan ezin irabazi

Erasoko jokoa kaxkarra izan zen bi taldeetan, huts asko egin zituzten jaurtiketetan, baina legazpiarrak etxeakoak baino finago ibili ziren

ALOÑA MENDI

49-55

TXIMISTA ELEKTRIZITATEA

Aloña Mendi | Madariaga, Otamendi (6), Iker Zabaleta (26), Iñigo Zabaleta, Ugarte (3), Blanco (2), Arregi, Garcia (3), Anton (5), Mendiola eta Madinabeitia (4).

Tximista Elektrizitatea | X. Ormazabal (12), Amilibia (10), Ogando (2), Aspiroz (5), Beistegi, Balerdi, J. Ormazabal, Albi-zu (6), J. Iraeta (11), Rodriguez (7), Garo eta X. Iraeta (2).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 6-9. Bigarren laurdena 15-24. Hirugarren laurdena 31-39. Laugarren laurdena 49-55.

Jokin Etxebarria

Partidu txarra ikusi zen zapatuan Zubikoan. Txarra, erasoari begira, bai oñatiarrek eta bai legazpiarrek huts gehiegi egin zituztelako kontrarioaren saskira begiratzerako orduan.

Derby baten antzera bizi izan zuten bi taldeek partidua. Normala da, Legazpi eta Oñati arte-

an 15 kilometro ere ez daudela kontutan hartzen baldin badugu. Baina partidua ez zuen emoziorik izan, azken minutuetara arte gutxienez. Etxekoak ez ziren batere fin ibili erasoan, azken emaitza ikustea besterik ez dago, eta defentsan ere, estutzen hasi nahi zutenean, zulo dezente utzi zituzten. Legazpikoek ondo aprobetxatu zuten hori saskiratzeak lortzeko.

Gainera, aipatu behar da, Iñigo Zabaletak eta Eneko Garciak ez zutela egunik onena izan, eta, agian, Ander Gorostiaga entrenatzaileak, errotazioak egiterako orduan, ez zuela asmatu. Horrek asko kaltetu zuen taldea.

AZKEN LAURDENA

Lehen hiru laurdenetan saskibaloia pobrea ikusi ondoren, non hutsak jokaldi politen gainera nagusitu ziren, nahikoa abantaila politikarekin heldu ziren kanpokoak azken laurdenera. Eskerrak hirugarren laurdeneko azken minutuetan etxearen berpizte txiki bat ikusi zen, bestela emaitzari lotsagarri izateko gutxi faltako litzaioke.



AITOR LIZARRALDE

Huts asko egin zituzten jokalariek saskira begira.

Laugarren laurdenean, etxeakoak hirugarren laurdeneko azken minutuetako berpizkunde horri jarraipena ematen saiatu ziren. Defentsan baloi asko lapurtuta, kontraerasora irteten ziren, eta pertsonal dezente ateratu zituzten, gutxika-gutxika puntuak lortuz. Baina markagailuko diferentzia murriztea asko kostatzen zitzaizen, eta horrek taldea presaka jokatzerara eraman zuen.

Markagailuko abantaila berehala murriztu nahiak, erasoan azkar jokatzerara eraman zituen etxeakoak, nahiz eta denboraz larri ez egon, eta horrek baloi asko galtzea ekarri zuen. Legazpikoek ederki aprobetxatu zituzten oñatiarren hutsak, eta partiduari azken minutuetan eurak nahi izandako erritmoa jarri zioten; horrela, ez zuten arriskuan ikusi garaipena.

Lehen laurdenean partidua irabazi

MUGARRI ALKESA

71-53

ZARAUTZ

Mugarri Alkesa | Aranzabal, Imanol Cenciaga (12), Some, Barberena (14), Gomez (2), Elorza (6), Arejolaleiba (12), Merino (2), Aitor Cenciaga (23) eta Atxa.

Zarautz | Egurza (7), Etxebarria (4), Eizaguirre (7), Aldasoro (83), Aizpuru, Iribar (13), Jones (2), Gonzalez, Sorazu (7) eta Alberdi (10).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 30-7. Bigarren laurdena 36-25. Hirugarren laurdena 57-35. Laugarren laurdena 71-53.

Jokin Etxebarria

Erraztasunez irabazi zuten Mugarri Alkesako kadeteek zapatuko partidua, eta horrenbestez, bola da onari eusten diote. Lehen laurdenetik hasita abantaila handiekin ibili ziren partidu guztian, eta azkeneko, Jose Mari Balzategi entrenatzaileak jokalariek guztiei minutuak emateko aukera izan zuten.

ZONAKAKO DEFENTSA

Hasiera-hasieratik, eta nahiz eta ohikoa ez izan, zonakako defentsa erabili zuen Arrasateko taldeak. Zarautzarrek ez zuten jakin defentsa honen aurka lehen laurdenean erasotzen. Gainera, Beñat



AITOR LIZARRALDE

Beñat Barberena nagusi izan zen taula azpian.

Barberenaren taula azpiko nagusitasuna ikusita, barneraketak egiten ere ez zuten asmatu, eta etxeakoak kontraerasoan puntu asko sartzeko aprobetxatu zuten. Lehen laurdena 23 puntuko aban-

tailarekin amaitu zuten etxeak. Eta nahiz eta bigarren laurdenean apur bat erlaxatu, hortik eta bukaera arte emaitzari eustea besterik ez zuten egin behar izan.

• LEHEN MAILA

Zazpigarrena jarraian Arrasatekoek

A.G.

Ederki bukatu dute denboraldia Mugarri Alkesako jokalariek. Denboraldiko partidurik onenetarikoa eginez. Erro y Eugi talde nafarrari 89-105 irabazi zioten. Talde guztia ibili zen ondo. Gainera, Gorka Zurutuzak ohiko jokalariei atsedena eman eta normalean jokatzen ez dutenei minutu batzuk emateko aukera eman zien. Mallabiabarrarenen baja ere ez zuten gehiegi igarri.

Orain, hilabeteko atsedena izango dute eta gero, Federazio kopa jokatuko dute.

• 2. MAILA NAZIONALA

Jaitsiera faseko lehen partidua galdu

A.G.

Eskoriatzak ez zuten ondo hasi atzo jaitsiera fasea. Lehen partidu hau Portugaleten jokatu zuten, eta 52-49ko emaitzarekin galdu zuten.

PARTIDUA BERDINDUTA

Partidua hasieratik joan zen berdinduta, eta etxeak lortutako alderik handiena 8 puntukoa izan zen. Azken txanpan, hiruko jaurtiketa batekin berdintzeko aukera izan zuten eskoriatzarrek, baina ez zuten lortu. Galdu arren itxura ona eman zuten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Erro y Eugi-Mugarri Alkesa 89-105

SENIOR MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Zarautz-Candy BKE 62-78
Aloña Mendi-Tximista elek. 49-55

GAZTE MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa Atsedena
Aloña Mendi Atsedena
Bergara Atsedena

KADETE MAILA

Lacor-BKL CAF 37-41
Aloña Mendi-Loyola 58-44
Mugarri Alkesa-Zarautz 71-53

NESKEN BIGARREN MAILA

Pin. Esteco-Eskoriatza 52-49

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-Easo 42-35
Eskoriatza-Luberri 32-42

KADETE NESKAK

Bergara-Easo 44-32
Astigarraga-Eskoriatza 29-33

Eskola kirola

OÑATI

Eguraldi txarragatik partidu askoren ordutegia aldatu egin zen

Neskek eta mutikoek esku pilotan jokatzeko aukera izan zuten pilotalekuan

Euria zela eta, Ibarren jokatu beharreko partidu batzuk Zubikoan izan ziren

Gazte asko haserretu egin ziren hasieran, partidua ez zutela jokatu esan zietelako

Jasone Zabala

Asteburuan hainbat partidu izan ditugu Oñatin. Goiza, pilota partiduekin hasi zuten Zubikoako pilotalekuan; eskubaloia eta areto futbola ere izan zen Zubikoan, eta baita Olaiturrin ere.

Protagonista euria izan genuen. Eskubaloiko lehen orduko partiduak talde bakoitzari tokatzen zitzaion kantxan jokatu zituzten, baina ondoren, gaizki ulertu bategatik, eskubaloiko lau partidu ordu berean jokatzeari egokitu zitzairen. Nola edo hala moldatzen saiatu ziren koordinatzaileak, baina eguraldi txarrak ez zuen batere lagundu. Ibarren zelaian jokatzeari ere zaila zen, eta ondorioz, neska-mutiko asko haserretu egin ziren, beraien partiduak jokatu nahi zituztelako. Azkenean, ordua atzeratu egin zuten eta guztiek jokatu ahal izan zuten.

AZKENEAN DENOK POZIK

Beranduago izan arren, partidu guztiak jokatu ziren: neskek jokatu beharreko eskubaloiko partiduak ere jokatu zituzten, beranduago izan bazen ere.

Pilotalekuan aritu ziren gaztetxoek, euren orduan izan zituzten partiduak, eta lehenengo neskek eta gero mutilak aritu ziren pilotalekuan.



HAINBAT IKASTETXETAKO 3. MAILAKO MUTIKOAK.

Ezkerreko argazkian: Jon, Josu, Aitor, Aritz, Iñigo, Xabi, Asier, Jon, Aitor eta Imanol.

Eskuineko argazkian: Gorka, Iñigo G., Iker, Julen D., Mikel, Julen U., Andoni eta Christian.



HAINBAT IKASTETXETAKO 4. MAILAKO MUTIKOAK.

Ezkerreko argazkian: Ibai, Ander, Oxel, Iñaki, Andoni, Iñigo, Julen eta Mikel.

Eskuineko argazkian: Jon Ander, Iñaki, Xabi, Koldo, Beñat, Eneko, Mikel, Gorka, Aitor eta Ander.



JASONE ZABALA



JASONE ZABALA

• HORRELA IKUSI DUTE GAZTETXOEK



JAGOBA, JON ETA GAIZKA |
ELKAR HEZI IKASTOLA

“Hasiera batean ez genuen partidurik izan behar gaur, gaizki ulertu bat egon delako, baina pozik gaude, jokatu behar dugula esan digute eta”.



MIRARI, ANE, MADDI, JONE ETA EVA |
ERREKALDE

“Gehien gustatzen zaiguna eskubaloia da; gustura etortzen gara, nahiz eta zapatu goiza izan. Eskolako lagunek guk baino lehenago jokatu dute eta ikustera etorri gara”.



MAITANE ETA MIREIA |
PIRATAK

“Guri gehien eskubaloia eta futbola gustatzen zaizkigu. Oraindik ez dugu partidurik, baina gelakideak animatzera etorri gara”.



MAIDER ETA IRENE |
PIRATAK

“Orokorrean kirol guztiak atsegin ditugu, baina gehien eskubaloia gustatzen zaigu; oraintxe izan dugu partidua”.

IRUDITAN



Emandako salto handi horrekin sartuko da baloia ate barrura?



Neskek erakutsi zuten, mutilek adina indar dutela.



Atezaina saiatu da baloia gelditzen, baina ate barrura sartuko da?



Lokarriak ondo lotu ezean, zaila izaten da kirola ondo egitea.



MAIALEN ETA NAIARA |
PIRATAK

“Eskubaloia eta futbola gustatzen zaizkigu. Gaur Ibarren ezin dugu partidurik jokatu eguraldi txarratik, eta aterpean hobeto”.



IRENE ETA MAIDER |
PIRATAK

“Gaur eguraldiak ez digu batere lagundu. Ohetik jaikitzea kosta arren, gustura etortzen gara partiduak jokatzerara”.



NIKAURY ETA ITSASO |
PIRATAK

“Eskubaloia ategin dugu, eta orain-txe izango dugu partidua, nahiz eta tokatzen zaiguna baino beranduago hasiko den”.



MIREIA, MELANI ETA JANIRE |
ERREKALDE

“Futbola da gehien gustatzen zaigun kirola. Gaur eskubaloian arituko gara; eguraldi honekin goizean goiz jaikitzea kosta egiten da pixka bat, baina gustura etortzen gara taldekideak animatzera”.

ASPE-BERGARA | 18.000 EURO ETA 15 PARTIDU. HITZARMEN HORI SINATU DUTE ASPEK ETA BERGARAKO UDALAK

Lau t'erdiko eta banakako txapelketako partiduak Bergaran

Egubakoitz arratsaldean sinatu zuten hitzarmena Aspek eta Udalak

Marijo Deogracias

Patxi Mutiloa, Jokin Etxaniz eta Iban Arakistain lagun zituela agertu zen Bergarako udaletxera joan zen egubakoitzean, Bergarako alkate Victoriano Gallastegiarekin zuen hitzordura. Helburua: Aspe pilota enpresak eta Bergarako Udalak hitzarmena sinatzea udal pilotalekuan aritzeko Aspek pilotariak. Gustura zeuden bi sinatzaileak: batek, Aspek lortu duelako Astelena ordezkatzeko pilotaleku egokia; bestetik, Bergarako berreskuratu egin dituelako profesional mailako pilota partiduak.

KATEDRALAREN PAREKO

Aspe enpresak Bergarako Udal pilotalekuarekin lortutako akordioa Eibarko Astelena *katedralarekin* zuena bertan behera geratu izanagatik etorri da. Bergarako alkate Victoriano Gallastegik, hala ere, hauxe azpimarratu zuen "pozgarria da Bergaran lehen mailako pilota partiduak ikusteko aukera izatea, baina nahia go nuke beste egoera baten lortu izan bagenu. Etorkizunean, bi pilotalekuetan jokatu ahal izatea litzateke egokiena". Patxi Mutiloa Aspek kudeatzaileak Bergarako Udal pilotalekuaren maila azpimarratu zuen: "frontisa eta kantxa egoera oso onean ditu Bergarako pilotalekuak eta Astelena atera ez zenean beratu izan zen lehenengo aukera".

Bilboko Deportivo, Hernaniko Galarreta eta Eibarko Astelena dira pilotaleku pribatu bakarrak. Mutiloaren esanetan, "Bergarako udal pilotalekua maila handiko frontoia da eta ondo hartutako erabakia delakoan gaude".



Joan zen egubakoitzean sinatu zuten hitzarmena Aspe enpresako kudeatzaile Patxi Mutiloak eta Bergarako alkate Victoriano Gallastegik.

Astelena zaleei dagokienez, Mutiloa ziur dago Bergarako ere takila ona izango duela, "beti ere kontuan izanik jendeak ohiturak aldatuta dituela eta zuzeneko-erara txapelketetan bakarrik joaten dela. Hala ere, Eibarrera bertakoa baino kanpoko jende gehiago joaten zen; beraz, Bergaran ere harrera ona izango dugu".

Del Rey eta Galartza VI.-a arituko dira domekan, estelarraren zain

la sinistu nahi dut. Gainera, kontuan izanik astean bi partidu egiteko konpromisoa daukagula ETBekin zaleek partidu asko ikusteko aukera izango dute".

MARTXOAREN 13AN URREZKO PROBA

Datorren domekan izango da estreineko partidua Bergarako

Domeka arratsaldez izango dira Bergaran jokatu diren partiduak

Udal pilotalekuan. Oraindik erabaki barik dago zeintzuk arituko diren lehen mailako partiduan. Mutiloak adierazi zuenez, "Martinez de Irujo da aukeretakoa bat"; hala ere, atzoko partiduen emaitzaren arabera erabakia zela aitortu zigun; beraz, aste barruan erabakiko dute zein izango den estelarra domekan Bergarako Udal pilotalekuan.

HIRU MOTATAKO PARTIDUAK JOKATUKO DIRA

Joan zen egubakoitzean sinatutako akordioaren arabera, Aspe enpresak 15 partidu antolatuko ditu Bergarako Udal pilotalekuan. Bitik laura norgehiagoka banakako pilota txapelketako partiduak izango dira. Beste bi

Bergarako Pentekoste jaietan antolatutako Aspe enpresak. Osterantzeko partiduak lau t'erdiko txapelketakoak izango dira. Bergarako partiduak domeka arratsaldez izango dira.

Iaz birritan jokatu ziren lehen mailako pilota partiduak Bergarako Udal pilotalekuan.

JOKIN ETXANIZ ETXEAN

Jokin Etxaniz, Bergarako pilotari ohia eta Aspe enpresako kirol arduraduna ere pozik zegoen Bergarako Udalarekin bera ordezkatzeko duen enpresak lortutako akordioagatik. "Etxetik gertuago arituko naiz behintzat" esan zigun hitzarmen sinadura ekitaldia ostean, barretxo batekin.

Bergarako Udalak 18.000 euro ordainduko dizkio Aspe pilota enpresari

Bergarako Udala eta Aspe pilota enpresaren artean sinatu duten hitzarmena tarteko, Bergarako Udalak 18.000 euro ordainduko dizkio Aspe enpresari martxoaren 13tik abendura bitartean Aspek Bergarako Udal pilotalekuan antolatuko dituen partiduengatik. 15 pilota partidu izango dira eta Patxi Mutiloak azaldu zuenez "Eibarko pilotalekuarekin zegoen hitzarmena eta Bergarako derrigor ezberdinak behar dute Astelena pilotalekua pribatua baita eta Bergarako publikoa. Han partidu kopuruaren arabera ordaintzen zigiten. Bergaran kopuru finkoa izango da".

Inaugurazio partidua martxoaren 13an, domekan, jokatu da Bergaran

Oraindik erabaki barik dago zein izango den Aspek Bergarako Udal pilotalekuan programatu duen kartela, baina Mutiloak baieztatu egin du martxoaren 13an, banakako pilota txapelketako partidua ikusteko aukera izango dela: Del Rey eta Galartza VI.-a arituko dira aurrez aurre hasierako partiduan.

Osterantzean hamabost partidu antolatuko ditu Aspe enpresak Bergaran, tartean profesionalen arteko partiduak, lau t'erdiko txapelketako partiduak eta bestelako jaialdia izango dira.

Bergarako alkateak abendutik aurrera ere partiduak izan nahiko lituzke pilotalekuan

Victoriano Gallastegi pozik zegoen egubakoitzean sinatutako akordioarekin. "Pozgarria da Aspe enpresak Bergarako Udal pilotalekura pilota partiduak ekartzea eta nahiko genuke akordioa abendura arte den arren, handik aurrera ere luzatu ahal izatea. Hala ere, hori baino lehen Eibarko Astelena pilotalekuarekin izan den ika-mika konponduta egotea nahiko genuke. Onena litzateke bi lekuetan egon ahal izatea pilota partiduak; bi pilotalekuetan aldi berean egotea partiduak eta pilotazaleek aukeran izatea pilotalekuak zein pilota partiduak".

ASPEK BERGARAKO PILOTALEKUAN JOKATUKO DU

PATXI MUTILOA | ASPE PILOTA ENPRESAREN KUDEATZAILEA

"Bergarako kantxa egoera oso onean dago"

M.D.

Aspe pilota enpresak eta Bergarako Udalak sinatutako akordioa dela eta, Patxi Mutiloa gustura dago. "Astelenarekin genuen hitzarmena bertan behera geratuta, Bergara zen aukeratariko bat" adierazi digu Mutiloak.

Zer dela eta aukeratu duzue Bergarako pilotalekua?


Eibarko Astelena pilotalekuarekin genuen hitzarmena bertan behera geratu ostean, Bergarako pilotalekua zen aukeratariko bat. Egon, bazeuden pilotaleku gehiago, baina Bergarakoa zen lehenengo aukera. Frontoi oso ona da; beste leku batzuetan beste kirol batzuetarako erabiltzen dira pilotalekuak, baina Bergarakoa oso ondo zainduta dago; kantxa eta frontisa egoera oso onean daude eta aldagelak ere ondo daude.

Bergarako Udalak 18.000 euro ordainduko ditu Aspe pilotalekua erabiltzeko. Nola da hori?

Bergarako Udala pilotalekua da; ez da pilotaleku pribatua Bilbokoa, Hernanikoa eta Eibarkoa legez. Eibarko pilotalekuarekin geneukan akordioan jokaturako partidu kopuruaren arabera ordainketa egiten genuen. Bergaran kopuru finko bat ordaintzea adostu dugu.

Eibarko zaleak Bergarara etorriko direla uste duzue?

Eibarko jende gutxi joaten zen Astelena ere. Pilotazaleak kanpokoak ziren gehienak, beraz, batera edo bestera mugitzea ez da arazo izango. Hala ere, gaur egun oso zaila izaten da frontoia betetzea; jendeak txapelketetara joateko ohitura hartu du eta beste-



M.D.

lako pilota jaialdietara ez da jende asko joaten. Hala ere, ETBrekin astero bi partidu emateko hitzarmena daukagu eta partidu kopuru hori behintzat programatu behar izaten dugu.

Neguan jende gutxiago joaten da frontoietara eta hori izaten da sasoirik txarrena; udan, txapelketak direla eta udako zirkuituak direla, errazagoa da ETBrekin daukagun hitzarmena betetzea.

Zein izango da Bergarako irekiera-kartela?

Nagusia oraindik erabaki barik daukagu, baina aurreko partidua banakako txapelketako partidua izango da: Del Rey-Galarza VI.a.

Bergaran jokatu duzuela kontuan izanik, partidu berezirik izango da?

Antolatzen ditugun partidu guztiak onak izan daitezen saiatzen gara, beraz, guztiak.

PILOTAZALEEN IRITZIA



JUANITO ARRIARAN | ARRASATE

"Bergarako pilotalekua udal pilotalekuen artean politena izan da"

Pozik dago Juanito pilota partidu profesionalak ikusiko direlako. "Ondo legoke, hala ere, aurrera begira, zapatuko partiduak Bergaran izatea eta domekakoak Astelena. Bergarako pilotalekua munizipalitan politena izan da".



JUAN MARI ARANTZETA | ELGETA

"Bazen ordua sasoi bateko partiduak berreskuratzeko"

"Oso ondo irizten diot akordioari; bazen ordua sasoi bateko partiduak berreskuratzeko", dio Juan Mari. Gainera, "lehen Eibarrera mugitzen zena orain ere mugituko da Bergarara. Ea herriko eta inguruetako jendea etortzen den".



JOSE RAMON MADINABEITIA | BERGARA

"Jendea ez da lehen bezala animatzen frontoietara"

"Ona da guretzako partiduak Bergaran izatea, baina ez dakit ondo aterako den kontua: zapatua ez zen egun ona izaten eta domeka ere ez dakit ona izango den. Jendea ez da lehen bezala animatzen frontoietara", esan digu Jose Ramonek.



JOKIN ETXANIZ | BERGARA

"Pilotarien oso gustukoa izan da beti Bergarako frontoia"

"Horrelako frontoia geldi egoitea pena zen; pilotarien oso gustukoa da. Bergarar moduan, frontoi ohitura galdu izana triste da. Zaila da ohitura berreskuratzea, zaleak eta haserre daude, baina frontoira etortzera animatu!".



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Grupo Eroski Erosten jakin

Trialsina

• GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Iker Lezeta Aretxabaletako txapelketan nagusitu zen

59 pilotuk parte hartu zuten, tartean ziren 23 debagoiendar

Jon Unamuno

Bizikleta gaineko ekilibristek Aretxabaletan Gipuzkoako Txapelketako hirugarren proba izan zuten. Superklaseaz gain, juniorrak, infantilak, alebinak eta emakumeak ere lehiatu ziren. Gainera, nahi zuenak parte hartzeko aukera izan zuen eta sei aretxabaletar trialsina probatzen animatu ziren.

Iker Lezeta izan zen superklasean nagusi. Debagoiendarrak edo, hobeto esanda, aretxabaletarrak, beste mailetan podiumera igo ziren. Horrela, Oihana Aldai eta Ariane Unanue bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren. Markel Uriarte bigarren izan zen



AITOR LIZARRALDE

Probaren zailtasunak zirela eta oso ikusgarria izan zen txapelketa.

infantiletan eta Aitor Muruak ere postu bera lortu zuen alebin mailan. Benjaminetan Unai Zunzunegi izan zen irabazlea.

BI ASTE BARRU OÑATIN

Gipuzkoako azkeneko proba Oñatin izango da bi aste barru. Joatea merezi du.

Pilota

Gipuzkoako lau bikotek jokatu zituzten partiduak Antzuolako pilotalekuan

Jasone Zabala

Pasa den zapatuan Antzuolako pilotalekuan hainbat partidu jokatu ziren. Gipuzkoako teknifikazio eskolan ari diren infantil mailako hainbat gazte partiduak jokatu zituzten euren artean.

Debagoienetik, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzatik joan ziren gazteak, baina Gipuzkoako beste herri batzuetatik ere etorri ziren: Usurbildik, Donostiatik, Villabonatik...

Elkarren kontra jokatu zituzten partiduak, bi modalitatetan: banaka, lau t'erdian 10 tantotara, eta seigarren koadroraino bikoteka, hauek ere hamar tantotara. 13-14 urteko gazte hauek ederki asko erakutsi zuten, duten adinerako, maila altua duten gazteak direla, eta bertara hurbildu zirenek beraien tantoez gozatzeko aukera izan zuten.

BESTE BI ASTEBURU

Aipatu behar da, atzokoaz gain, datorren bi asteburutan ere tek-



AITOR LIZARRALDE

Beraien maila ederki erakutsi zuten.

nifikazio eskolan ari diren gazte hauek, berriz ere, Antzuolara etorriko direla, partiduak jokatzen eta teknifikazio eskolan ikasitakoa praktikan jartzera. Ondoren, Gipuzkoako beste herri batzuetako pilotalekuan ere arituko dira.

Txirrindularitza

Dorletako Amak bere izena duen ermitan aurkeztu zituen talde guztiak

A.G.

Lau talde hartuko ditu bere baitan aurtengo denboraldian Dorletako Amak. Batetik, kadeteak egongo dira eta atzo izan zuten lehen proba Ibaetan. Infantilak eta alebinak ere egongo dira denboraldi honetan eskolaren barnean. Mendiko bizikletak bere tartea izango du. Aurreko denboraldiko esperientzia guztiz positiboa izan zenez, gogo handiz jarraitzen dute.

Bestalde, Sumofic taldea ere aurkeztu zuten ekitaldi berean. Debagoieneko txirrindulariz osatutako gazte mailako taldea da eta Dorletako Amaren Ander Nafarrete eta Antton Anduaga taldekide dira.

Jon Urrutiak gidatzen duen eskolak 26 urte egiten ditu aurtun. Aipagarriak dira Aretxabaletan abuztuaren 16an eta Gatzagan irailaren 4an antolatuko dituzten amateur lasterketak.



DORLETAKO AMA

Aurkezpenean txirrindulariak denboraldia hasteko gogo handiarekin zeuden.



BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuak

Manuel Salaberria Mediku oftalmologoa

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Jose Luis Mendilibarrek denboraldi honen hasieran hartu zuen Eibar futbol taldeko entrenatzaile kargua. Zaldibarko entrenatzaileak bi urte eman ditu

Lanzaroten entrenatzen, baina aurtengo denboraldian egin da ezagun, Eibar sekulako denboraldia egiten dabilelako. Oso pozik dago bere jokalaria egiten dabiltzan

lanarekin. Entrenamenduen ondoren jokalaria izotzetan sartzeagatik ere ezagutu dugu Jose Luis; lesioak ez izateko egiten du hori Zaldibarkoak.

JOSE LUIS MENDILIBAR | EIBAR FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Oraingo Eibarren sekretua egiten diren lan saioetan dago"

Jokin Etxebarria

Lehenik eta behin, zorionak egiten zabilzaten denboraldiagatik. Espero zenuten denboraldi hasieran horren ondo ibiltzea?

Beti espero duzu gauzak ondo irten direla. Baina, horren ondo ibiltzea eta hainbeste denboran, egia esateko ez. Hala ere, egunero-egunero, eta astero-astero lan gogorra egiten dugu horretarako, eta azkenean, gauzak ondo irtetzen dabilta.

Gainera, zuen mailan aurrekontu baxuenetakoa daukazu, ez?

Bai, hori horrela da. Eibarrek urtero-urtero aurrekontu txikiena izaten du. Baina, batzuetan ez da izaten bakarrik diru kontuak onak izateak. Nire ustez, ilusioa edukitzen baduzu, gogo handiarekin irtetzen baduzu... eta kontuan hartu behar da, bertara etortzen diren jokalariek asko gero gorago jokatzeko asmoz etortzen direla. Leku askotatik etorri dira hona, batzuk dirua galten, baina pentsatu dute Eibar erakusleihen on bat dela gero gorago jokatu ahal izateko. Orduan, jokalariek jartzen duten gogoarekin, gauzak ondo irtetzen dira.

Meritu handiagoa kontuan hartuta, urtero 10-11 jokalar berri hartzen dituzuela, ezta?

Bai, urtero berdin izaten da. Hasieratik hasi behar da taldea eraikitzen. Adibidez, datorren urterako, sei jokalarirekin kontatzen dut bakarrik oraingoz. Eta pentsatzekoa da datorren urtean ere, horrelako gauzaren bat gertatuko dela. Aurten ere, liga hasi baino 10 egun lehenago oraindik taldea osatu gabe geneukan. Baina gu ez ginen urduri jarri, eta lanaren bitartez gauzak ondo ateratzen ari zaizkigu.

Dagoeneko maila mantentzea baino zerbait gehiagotan pentsatzen hasi zarete?

Bigarren mailan, bi helburu bakarrik daude: maila mantentzea, edo mailaz igotzea. Maila

mantentzea ia lortuta daukagu. Berez, Eibarko taldeak ezin du helburu moduan igotzea jarri, partidu asko gelditzen dira oraindik. Astero-astero, eta partiduz partidu pentsatzen joanaz, nik uste azkenean nahiko goian ibiliko garela, baina ez dakit hiru garren, bosgarren edo zazpigarren bukatuko dugun.

Presidenteak gutxienez, esana du igoerarako primetan pentsatzen hasi beharko dela.

Hori ona da, taldea ondo dabilen seinale. Ondo dago horretan pentsatzen hastea, azken momentura arte utzi gabe. Baina jokalariek jakin behar dute horri buruz hitz egiteko ez dagoela presarik, hitz egingo dela. Hala ere, horretarako mailaz igo behar da. **Non dago Eibarren sekretua? Entrenamendu ondoren jokalaria izotzetan sartzean?**

(Barre) Ez. Egia esan horrek ere funtzionatuko du, lesioak ez izateko. Berez, horretarako egiten dugu. Sekretua entrenamenduetan dago, zelan entrenatzen den: gogo handiarekin, erritmo bizian... Eta nik beti esan izan dut, domeketan astean zehar entrenatu dugun bezala jokatzeko. **Berez, esan daiteke pozik zaude la jokalariek lanarekin?**

Bai, oso pozik. Egunero etxera etortzen naizenean hori da

"Astean zehar entrenatzen den bezala jokatzeko delako domeketan esan izan dut beti"

"Deialdiak egitean zailtasunak izaten ditut, jokalariek egiten duten lan onarengatik"



Pozik dago Jose Luis Mendilibar; izan ere, berak zuzentzen duen Eibar taldea sekulako denboraldia egiten dabil.

pentsatzen dudana, talde osoa dagoela ondo, ondo entrenatzen dutela, eta deialdiak egitean zailtasunak izaten ditut, penarekin gelditzen naizelako bi edo hiru kanpoan utzi behar izaten ditudalako.

Entrenamenduak askotan Eibartik kanpora egiten dituzue, zergatik?

Guk zelaiekin arazoak izaten ditugu. Ipuruan ezin izaten dugu entrenatu, bestela domekarako ez da egoten erabiltzeko moduan. Eibarren Unbeko errugbi zelaia erabiltzen dugu, eta bestela Abadiñora joaten gara. Hango taldeak euren instalazioak utzi dizkigu. Bi zelai daude, bata belar artifizialezkoa eta bestea naturala, gimnasioa ere badago, eta ezin kezatu. Oso ondo portatzen dira gurekin eta eskerrak eman beharrean gaude.

Eta zer gehiago egin behar du taldeak ipurua betetzeko?

Agian, zaleak taldea bigarren mailan horrenbeste urtetan

ikusita, ohitzen hasita daude, eta hori aldatzea oso zaila da.

Nik uste dut taldea aurten oso ondo dabilela, etxean oso partidu onak jokatzeko dituela. Eta, joaten diren zaleekin oso pozik nago, beti ari dira eta txaloka eta taldeari animoak ematen. Egia

da gutxi izaten direla, baina espero dezagun, hemendik aurrera, maila igotzeko aukera dugula ikusita, apur bat gehiago etortzea. Hori horrela izango balitz, taldeko jokalariek ere animo eta poztasun handiagoa izango lukete.

Mazda6. Kirol zaletasuna.

Bikar **M MENDIOLA**
San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- 'Cocidito Madrileño' antzezlanak bete egin zuen Amaia antzokia hiru emanalditan | 24
- Oihulari Klown taldeak emanaldia egin zuen egubakoitzean Bergaran | 24

Maristen gaineko erakusketa zabalduko dute egunean Antzuolan | 27

XV. ESKOLA-ANTZERKIAREN JARDUNALDIAK



LARRAITZ ZEBERIO

Irudian Arizmendi Almen ikastetxeko DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak *Tangala Danba* izeneko antzezlanaren antzezten Arrasateko Amaia antzokian.

ANTZEZLE HARROBIA LANTZEN | 80 BAT IKASLE ARITU ZIREN EGUAZTENEAN ETA EGUENEAN AMAIAKO AGERTOKI GAINEAN

Arrasateko ikastetxeek bost antzerki talde osatu dituzte aurtengo aldian

Joan den astean Arrasateko ikasleek landutako obrak ikusteko aukera izan zen Amaia antzokian. Apirilean antzerki talde profesionalek 8 antzezpen egingo dituzte 2.100 haurrendako

Larraitz Zeberio

Eguen arratsaldeko emanaldira joan nintzen ni. Oihal atzean urduritasuna zen nagusi, baina ez pentsa nahasmendu handirik zegoenik. Bakoitzak argi asko zeukan bere betebeharrak zein zen.

Goizeko emanaldia zuten antzezlari gazte guztiak buruan. "Goizean ondo atera bada, orain hobeto" esaten zuen batek. Erregidore eta guzti aritzen dira 12-13 urte bitarteko gazte hauek eta azken orduko zalantzak argitzen eman zituzten emanaldia hasi baino lehenagoko minutuak. Bitartean, Amaia antzokia jendez betetzen hasi zen. Dena prest zegoen.

DENETARIKO ANTZEZLANAK

Lehen antzezlanaren Arrasate Institutuko *Zer eman, hura hartu* izan zen. 12-13 urte bitarteko hogeitak lagun aritu ziren agertoki gainean.

Lasai eta ozen jardun zuten, ondo ahoskatuz eta antzezpeneren ildoak galdu gabe. Istorioko Mikele familiak diru arazo larriak zituen eta lagunek jaialdi handi bat antolatzea erabaki zuten diru pixka bat biltzeko.

Amaia antzokiko besaulkietan begira zeuden LHko 5. eta 6. mailako ikasleek gogoz txalotu zituzten aktore lanetan aritu ziren guztiak antzezlari amaiera ematen zion taldekako dantza saioa bukatu ondoren. Euren aurpegietan poztasuna zen nagusi.

Jarraian Afrikara egin genuen salto Arizmendi (Almen) ikastetxeko taldearen eskutik. Afrikako herritarra bateko txabolak ikusi genituen eta beltzak

Lasai, ondo ahoskatuz eta lanaren ildoak galdu gabe jardun zuten

Dekoratuak, argiak, jantziak, makillajea... oso antzerki landuak aurkeztu zituzten

baterre gustatzen ez zitzaizkion amona euskaldun bat. Antzerki talde hau ere fin aritu zen. Dekoratu oso polita zen eta ikasleen itxuraldatzea ere oso landua.

Azkenik, Arizmendi (San Vitor) ikastetxeko antzerki taldearen txanda iritsi zen. Sorginak, banpiroak eta mamuak ikusi genituen obra honetan. Tartean, liburu magiko bat eta desagertzen zihozten neska-mutikoak.

Ikasturte osoko lana ikusi genuen Amaia antzokian. Hurrengo egunean beste bi talde aritu ziren, Arizmendi (Ferixalekua) eta Mesedeetakoa A.M. ikastetxeak hain zuten ere.

Testuak irakurri, paperak banatu, dekoratuak eta jantziak prestatu... lan fina egin dute!

XV. ESKOLA-ANTZERKIAREN JARDUNALDIAK

JUANITO BARBERAN | HEZKUNTZA ETA KULTURA ZINEGOTZIA

“Antzerkia ludikoa izateaz gain hezigarria ere bada askotan”

Larraitz Zeberio

Juanito Barberanek Amaia antzokian eman ditu egun eta eguazten goizak. Haurrak antzerkia egiten ikusi nahi izan ditu berak ere.

Eskola-antzerki jardunaldien XV. edizioa da. Aldaketa asko izan dira?


Azkeneko sei urteetan ez da aldaketa handirik izan. Aurtengo berrikuntza DBHko 3. eta 4. mailako haurrendako ekarri dugun obra da. Zaila izaten da adin horietako haurrendako obrak programatzea, eta aurten ekarri dugun lan profesional bat beraiendako da. *Zapaldu marra* du izenburua eta drogen inguruan prebentzio jardueran lantzen duen obra da.

Zein helbururekin antolatzen dira jardunaldi hauek?

Helburuak asko dira. Antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzea, ikasleak antzokira eramatea eta antzerkia ikusten ohitzea. Antzerkiak oso alderdi hezigarriak eta ludikoak lantzen ditu. Kultura transmisioa ere badira jarduerak. Antzerkia ez da zinea bezalakoa, oso zuzena eta hurbila delako. Ahoz lantzen ikasten dute, adierazkorrak izaten...

Antzerkirako zaletasuna berreskuratu nahi duzue beraz?

Arrasatera antzezlan asko ekartzen dira eta harrobia landu egin behar dugu. Hemen antzerki talde gutxi dago. Egon izan dira bizpahiru, baina egun, amateur gisako talderik ez dago. Jarduera hauekin DBHko 80 bat ikasle ari dira antzerkia egiten, eta jakin badakigu, haur hezkuntzan antzerkia asko lantzen dela. Antzerkiarekin haurrek gauza asko lantzen dituzte: paperak buruz ikasi behar dituzte, jendaurrean antzeztu behar dute... **Mezuak era dibertigarrian zuzentzeko aukera ere ematen du, ezta?**



UBANE MADERA

“Antzerkia ekarri dugu aurten DBHko 3. eta 4. mailako gazteendako”

“Irakasleek urte osoko lana egiten dute eta eskertzekoa da hainbesteko ahalegina”

Bai. Helburua, aldi berean, baloreetan oinarritutako hezkuntza transmititzea da.

Ekimen honetan ikasleak eta irakasleak ari dira?

Bai, eta eskertzekoa da egiten duten lana. Urtero obra bat aukeratu, landu eta antzokira ekarri. Ahalegin pertsonala handia da. Bi entsegu egiten dituzte antzokian antzezlan jendaurrean eman baino lehen. Lan handia egiten dute. **Konforme zinateke...**

Helburuak bete eta eskola-antzerki jardunaldi hauei jarraipena ematen badiegu.

• PROTAGONISTEK HORRELA ESAN DIGUTE



JOKIN, KEPA ETA JOSU |
GAZTELUONDO IKASTETXEA

“Ikasturtero etortzen gara antzokira. Bestelakoetan ez gara askotan antzerkira joaten”

Hirukotea antzokiko lehen butaka lerroan aurkitu genuen agertokira begira. “Antzezlan politikak eta dibertigarriak iruditzen zaizkigu. Ikasturte guztietan etortzen gara antzokira. Bestela gutxitan etortzen gara”. Jakin badakite, urte gutxi barru euren txanda izango dela. Jokin eta Kepa urduri jarriko ei dira. Josuk argi du primeran arituko dela.



XABI |
S. VIATOR IKASTETXEA

“Jendaurrean antzezteak asko gustatzen zait”

“Urrian hasi ginen antzezlan prestatzen. Irakurketa, paperen banaketa eta orain, gehien gustatzen zaidana, jendaurreko emanaldia. Urtero egiten dugu antzerkia eta oso gustuko dut”.



MARIA, JONE ETA LAURA | ARRASATE INSTITUTUA

“Antzerkia oso dibertigarria da. Urduri geunden goizean baina bigarren emanaldia hobeto joango da”

Hiru neska hauek *Zer eman, hura hartu* antzezlan prestatzen ari dira irailaz geroztik gainerako ikasle lagunekin batera. Antzerkia asko gustatzen zaie. “Goizeko emanaldia ondo joan da”, azaldu digute. “Hanka-sartze batzuk egin ditugu baina gustura gelditu gara egindako lanarekin”. Goizean urduri zeudela aitortu digute, baina beste pertsona baten paperean sartzea oso dibertigarria dela. “Bigarren emanaldian hobeto arituko gara, ziur!”.

• IKUSLEEK IKUSI EZ ZITUZTENAK



ITXURALDAKETA. Arizmendi (San Viator) ikastetxeko antzerki taldea makillaje lanetan aurkitu nuen arratsaldeko emanaldiari hasiera eman aurretik. Denak ispilu aurrean zeuden *Liburu Magikoa* antzezlaneko sorgin, banpiro eta mamuek ahalik eta itxura sinesgarriena lortzeko.



AZKEN UNEKO XEHETASUNAK. Perfekzionistak dira oso Arrasateko ikasleak eta errejidoarendako galdera asko zituzten emanaldiari hasiera eman baino minutu gutxi lehenago. Irudian, Arrasate Institutuko ikasle taldea oihala zabaldu baino lehen.

Arrasateko 2.100 ikasle antzerkira

Apirilean antzerki talde profesionalen antzezpene txanda izango da. Guztira zortzi emanaldi izango dira apirilaren 8tik 22ra bitartean.

Apirilaren 25ean, 27an eta 28an, berriz, LHko 6. mailako ikasleek Amaia Udal Antzokia barrutik eta ohol-tzaren atzeko aldetik ezagutzeko aukera izango dute.



ANTZERKIA | 'MOLESTIAS CLOWNICAS'

Virginia Imazek eta haren taldeak, Oihulari Klownek, ireki zuten barikuan Emakumearen Astea Bergaran. *Molestias Clownicas* lana egin zuten Zabalotegi aretoan eta Pauxa eta Gardeniak osasunarekin dituzten arazoak ezagutu zituzten bertaratutakoek. | A.G.



IPIIN KONTAKIZUNA | PELLO AÑORGAK ANTZUOLAKO LIBURUTEGIAN JARDUN ZUEN

Ipuin, kantu, asmakizun eta hitz jokoz beteriko kontakizuna egin zuen Añorgak

Larraitz Zeberio

Temperatura hotzak eta elurra dira protagonista egunotan gure ibarrean eta garaian garaiko kontakizuna egin zuen Pello Añorga ipuin kontalari oiartzuarrak Antzuolan, alajaina!

Garaiz iritsi ziren Antzuolako gaztetxoak liburutegira. Badute ohitura nonbait, zeren txintxo ila-

ran jarri ziren arduradunek atea noiz zabalduko zain.

Pello Añorgak hiru ipuin kontatu zituen Antzuolan. Tartean, hori bai, kanturako eta asmakizunetarako astia hartuz. Bertaratutako guraso apurrak ere emaldian parte hartzen ikusi genituen. Liburutegian elkartutako 30 bat umeak laster sartu ziren neguko baso elurtuan aterpe bila

zebiltzan animalien kontakizunean, baita eskolan trumoa baino handiagoko soinua egiten zuen Ixabelen triparen istorioan ere.

Mimika, asmakizunak, hitz jokoak... Umeek barre egin zuten Pelloren ipuinekin eta ederki gozatu zuten alboan zeukan larruzko poltsa handitik bitxikeria berriren bat ateratzen zuen bakoitzean.



COCIDITO MADRILEÑO | 2.340 IKUSLE ARRASATEN

Ezaguna da azken hilabeteotan herriz herri dabilen *Cocidito madrileño* antzezlan. Hiru emanaldi izan dira asteburu honetan Arrasaten eta Amaia antzokia goraino bete da. Antza, irratian arrakasta duenak antzokirako ere balio du. | L.Z.



Atea ireki eta martxan jartzen da giltza sartu gabe, errepedeak egokitzen diren argiak, Bluetooth® sistema, ahotsaren bitarteko kontrola, kontsumo eta emisioetan erabat optimizatzen diren motorrak, TDCi 2.0 136zp eta 2.0i 145zp, bere mailako autorik seguruena, bere segmentuko lehen automobila, 100% lortzen duena bi impaktutan jasotako puntuetan, aurrealdekoan eta aldamenekoan. Focus gama berria 13.450 €**-tik aurrera. Hori guztiari kaxa baten barruan sartuko zela pentsatzen zenuen? Informazioa eta probatzea: www.nuevofordfocus.com edo 902 442 442

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak,
irauteko eginak



NCAP 15 euro fasean proben arabera. Ford Focus Trend 1.6i 100 zp 3 ate modeloentzat prezio gomendagarria Penintsulan eta Balear Uharteetan. Gasolina Prever plana, BEZa, garraioa, promozio deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hila amaiera arte baliagarria stockean dauden automobilentzat. Focus gama: 4.8tik 7,7 l/100km-ko kontsumo ofiziala. CO2 emisio ofizialak 127 tik 184 g/km-ra.

LAGUN ARTEAN | FERNANDO SAUNDERS ETA JONAN ORDORIKA ELGETAKO ESPALOIAN IZAN ZIREN EGUBAKOITZEAN

Baxu jotzaile bikaina eta 'tipo' dibertigarria da Fernando Saunders

*Detroitetik
Elgetara eta
Oñatira
txantxikuar
lagunarekin.
Bide hori egin du
Saundersek*

Marijo Deogracias

Edozeinen zale batek bizi nahiko lukeen istorioa dauka gogoan Jonan Ordorikak Saunders nola ezagutu zuen galdetuta: "Lou Reed ikustera joan nintzen Kur-saalera, baina Fernandok baxua jotzen zuelako joan nintzen. Saundersen CDa eskuan nuela egon nintzen aurrealdeko eserlekuetan. Lou Reed ohartu zen eskuetan nuenaz eta Saundersi esan egin zion. Kasu egin zidan eta harrezkero lagunak gara". Jonanek grabaketa estudioa dauka Betelun eta handik gatzatua bidaltzen die ahal duenetan Reedi eta Saundersi. Jonanek kontatu zigunez, gatzatua izugarri atsegin dute Lou Reed eta Saundersek: "ahal dudanetan bidaltzen diet gatzatua, Azkaratekoa; ika-ragarri gustatzen zaie". Espaloian postrerako jogurta eskatu zuen Saundersek, antza izango zuelakoan-edo! Bitxia benetan, baina adiskidetasunerako joera dute tipo hauek. Gu behintzat bikain hartu gintuzten Elgetako Espaloian eta barreka aritu ginen elkarriketan zehar.

Jonanek eta anaia Ruperrek abeslari oñatiarraren kantu bilduma pare bat bidali zizkioten eta "bihotzeraino sartu zitzaizkidan bere ahotsa eta musika. Hizkuntza ezezaguna zitzaidan arren, konektatu egin genuen", aitortu zigun



AITOR LIZARRALDE

Orain dela ia hamar urte ezagutu zuten elkar Jonan eta Fernandok. Harrezkero hainbat aldiz egon dira elkarrekin eta Ruperrekin ere grabatu du amerikarrak.

Fernandok. Ruper Ordorikaren *Hurrengo goizean* lanean baxua jotzen du Fernando Saundersek.

Lagun talde bitxia topatu genuen Espaloian egubakoitzean bazkalorduan. Elkar ulertzeko laguntza eskatu genion Tolosatik lagun ekarri zuten alemaniar bati. Antza, DVDa grabatu nahi

“Euskara ezezaguna zitzaidan arren, konektatu egin nuen Ruperrek bidalitako kantekin”

dute Fernando Saunders eta taldearen gainean.

Beste bitxikeri bat ere ezagutu genuen, Detroitetako izanik Fernando izena nolatan jarri zioten gurasoek: "amari izugarri gustatzen ei zitzaien Fernando Lamas aktorea". Ez dugu esango nork esan zigun.

Fernandok esan zigunez, "euskara lehenengoz entzun nuenean hunkitu egin ninduen. Ezagutzen dut Euskal Herria; Frantziara joaten nintzenetan muga pasatzen nuen beti. Orain ere, Marianne Faithfullekin eta Lou Reedekin Espainian bira egin bitartean, hemen geratuko naiz".

Hamilton Bohannon taldearekin aritu zen Saunders. Ruper ere han izan zen

Hamilton Bohannon taldearekin aritu zen Saunders baxu jotzailea. Jende gutxi ausartu zen Elgetara igotzen, elurra zela eta; hala ere, Espaloiko aulkiak bete ziren eta guztiok adi-adi jarraitu genuen baxua eta bateria jotzailearen arteko jolasa. Elkarrizketan ari zirela zirudien; bat-batean baxuak garrasi egiten zion eta bateriak erantzun, eta alderantziz. Bateria jotzaileak lortu zuen behin Saunders garaitzea norgehiagoka horretan.

Bikain aritu ziren lau musikariak; gitarra eta organo jotzaileak ere primerakoak dira. Bakoitzak bere bakarkako unea izan zuen

maila erakusteko eta bere txaloak jasotzeko.

Ordu eta erdira Ruper Ordorika igo zen jende artetik, Saundersekin grabatu zuen kanta abestera. Zuzeneko hunkigarria, eta aldi berean, indartsua izan zen. Txalo zaparradak ere horrela erakutsi zuen. "Beste bat" ere eskatu zuen jendeak, baina Ruperrek bete zuen lagunarekin eta jaitsi egin zen taula gainetik: emanaldia Hamilton Bohannon taldearena zen. Amaieran txaloak eta txistuak ere gogotik entzun behar izan zituzten musikariek. Oñatiko emanaldia ere oso antzekoa izan zen. Gaztelekura 170 lagun inguru gerturatu zen.



Berak esandakoa da, ez du asko bidaiatzen. Bere ahotsa, ordea, bidaia eta abenturekin lotzen dugu Euskal Herrian. Hogeita bat urte daramatza Radio Euskadiko *Levando*

anclas irratsaioa aurkezten. Datorren egunean Arrasateko Monterron kultura etxetik egingo du saioa. Afganistan, Asiako hego-ekialdea, Afrika beltza, Filipinak eta

Papua izango ditu hizpide bere bost gonbidatuekin. Urduri ei dago, hirugarren aldia baita saioa estudioetik kanpo eta jendaurrean egingo duela.

ROGE BLASCO | IRRATI ESATARIA, IDAZLEA ETA BIDAIA

"Oso lotsatia naiz eta saioa estudioetatik kanpo egitea erronka handia da"

Larraitz Zeberio

Zer entzungo dugu egueneko hitzaldian?

Hitzaldia irratsaio bihurtuko dugu, beraz, ez dakit zer aterako den. Ekialderantz egin duten mendebaldeko idazleen liluraz jardungo dugu. Marco Polo izan zen sartalderantz egiten lehena. Orduz geroztik bidaiari askok jarraitu dituzte bere pausoak.

Ana Maria Briongos izango duzu zure alboan. Zuk egindako eskaria da. Zergatik?

Nire ustez, estatu espainiarreko bidaia kronikari onenatarikoa da. 1.968an Indiarako bidea hartu zuen eta Afganistaneko Kandahar hiriraino iritsi zen. Askok gustatu zitzaion eta parsi hizkuntza ikasi zuen Teherango (Iran) unibertitatean. Hamar urte eman zituen Iranen. Orduz geroztik liburu asko argitaratu ditu. Hamaika elkarrizketa egin dizkiot azken hamabost urteotan, baina ez dugu sekula elkar aurrez aurre ikusi. Egunean ikusiko dugun elkar lehen aldiz.

Bidaia literatura generoa ez da batera berria, ezta?

Ni *Levando anclas* irratsaioa egiten hasi nintzenean ez zen bidaiari gainean ezer publikatzen. Burton eta Stanley afrikaristen lanak XIX. mende bukaerakoak eta XX. mende hasierakoak dira. Gero, desagertu egin ziren mota honetako argitalpenak. Esan genezake genero honen berragertzea Javier Reverteren *Sueño de Africa* liburuarekin etorri zela. Orain finkatutako generoa da.

Bidaia liburu asko irakurri dituzu?

Askok. Bidaiatzeko dudak erarik erosoena da. Orain, esaterako, Raul de la Rosa idazlearen *Irku Iadi, la senda del chaman* liburu irakurtzen ari naiz. Siberian mugilduta nabil. Ez da irakurri dudak liburu onena, baina oraindik oso ezezaguna den Siberiari buruzko informazio asko biltzen ari naiz.

Hirugarren aldia da irratsaioa estudioetatik kanpo egiten duzula?


Oso lotsatia naiz eta kosta egiten zait jendaurrean agertzea. Ez zait gehiegi gustatzen jendea begira edukitzea eta nahiago izaten dut irratsaioa estudioan egin, baina Arrasateren kasuan, zergatik ez? esan nion nire buruari proposatu zidatenean. Erronka bat da niretzat. Gogo handia dut baina aitortu behar dut urduri ere banagoela. Zirrargarria izango da, adrenalina igoera ikaragarria. Gainera, Ana Maria Briongos aurrez aurre izango dut. Pentsa!

Martxoaren 11n zure saioak 21 urte beteko ditu. Zein da sekretua?

Entzuleak. Nire ustea da entzule gutxi ditugula, baina oso fidelak. Abenduan liburu argitaratu nuenean konturatu nintzen. Liburuak 28 elkarrizketa jasotzen ditu. Entzule askok nik baino hobeto gogoratzen dituzte elkarrizketatuak. Dagoeneko 7.400 liburu saldu ditugu. Hori izugarria da.

Entzuleek, ordea, zerbaitegatik aukeratzen dute zure saioa?

Nik uste saio honekin jendeak amets egiten duela. Beste kulturak, beste ohiturak, beste gizar-teak ezagutzen ditugu elkarrekin. Dena, gainera, xumetasun



Roge Blascok Arrasateko Monterronen egingo du bere saioa datorren martxoaren 10ean, eguna.

handiarekin. Nire saiora ez da super gizonik ez super emakumerik etortzen. Abenturazaleak dira. Munduko txoko batera iritsi dira eta aztarna gutxien uzten saiatu dira. Bakioitzak bere esperientzia du eta hori kontatzen etortzen dira, besterik gabe.

Elkarrizketa asko egin dituzu. Bada jaso ez duzun testigantzarik?

Egia da gero eta zailagoa egiten zaidala leku guztiz ezezagun batean ibili diren bidaiariak topatzea. Garrantzizkoa, ordea, bakioitzaren esperientzia da. Esaterako, egun batean Aralarren galduta

ibili zen mutil bat elkarrizketa-tu nuen. Eta zer nolako testigantza gainera! Agian uharte exotikoetan ibili den bidaiari baten kontakizuna baino interesgarriagoa izan zen hura, zirrargarriagoa. Nork eta nola kontatzen duen da garrantzizkoa.

"Saioarekin hasi nintzen garaian ez zen bidaia libururik argitaratzen"

"Ana M^a Briongos aspaldi ezagutzen dut baina egunean ikusiko dugu elkar lehenengo aldiz"

"Nire saioa xumea da, bakoitzak bere abentura kontatzen du. Ez dago super abenturarik"

"Behin Aralarren galduta ibilitako mutil bat elkarrizketatu nuen. Nolako testigantza!"

0000 km

**Mondeo
C-Max
Fiesta**

**Haxe
da
aukera!**

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es



gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

Hiru margolariren lanak ikusteko modua dago Arrasaten eta Elgetan

Debagoiendar batek erakusten du, Tomas Rubio 'Roy' eskoriatzarrak; Iñaki Saratxagak eta Elisabet Egurenak ere bai

Leire Kortabarria

Hainbat margo eta arte grafiko erakusketa daude zabalik edo inauguratuko dituzte egunotan Debagoienera. Hain zuzen, hiru erakustaldi bisitatzeko aukera izango dugu.

Bi zabalik daude dagoeneko, biak hala biak Arrasaten. Batetik, Tomas Rubio *Roymargolari* eskoriatzarrak bere lanak erakusten ditu Iturriotz kaleko Harresi aretoan, aste-egunetan 18:00-20:00 bitarteko ordutegian eta zapatu eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00 bitarteko ordutegian.

29 lanek osatzen dute erakusketa, gehienak Debagoienera eta euskal kostaldeko pai-

saiak eta natura hilak. Martxoaren 20ra bitartean dago zabalik erakusketa.

Arrasaten ere, Arregi markoztatze dendan (Maalako Errabala 8), Iñaki Saratxaga artista bilbotarraren erakusketa ikusteko azken egunak dira, egubakoitza arte egongo da eta. Argazkiak eta marrazkiak daude. Argazkiak bi erakusketatik aterata daude eta bi estilo desberdinekoak dira: batetik, Andy Warholen omenez egindakoak, gaien ikuspegi kritikoa ematen dutenak; bestetik, collage-erakusketak. Bestetik, marrazkiak giza aurpegiak dira gehienak. Denda-ordutegietan dago erakusketa zabalik.

ELGETAN

Hirugarren erakustaldi bat inauguratuko dute egunotan, hilak 10. Elgetako Espaloia antzokian izango da. Elisabet Eguren eibartarrak 20 bat margo ipiniko ditu hain hilaren 20 arte. Paisaiak, natura hilak eta giza irudiak dira. Teknika alde-rik, olio da nagusi, nahiz eta inoiz beste teknikaren bat erabiltzen duen Egurenak.

Labur

Lukas Prest talde eskoriatzarra maketa kaleratzeko gertu dago

Debagoienera taldeak diskoak eta maketak plazaratzen dabilta azkenaldian. Orain dela gutxi, Arrasateko Jukebox taldeak argitaratu du bere lehen diskoa, eta Eskoriatzako Lukas Prest laukoteak maketa kaleratuko du datozen egunotan. Inguruko taberna eta gaztetxeetan salduko dute.

Maketak zazpi abesti ditu; sei taldeak sortutako abestiak dira, eta bestea, bertsio bat. Hardcore eta punk-rock doinuak lantzen dituzte; letretan, hainbat gairen kritika egiten dute.

'Maristak Antzuolan' erakusketa inauguratuko dute hitzaldi batekin

Maristak Antzuolan argazki erakusketa inauguratuko dute egunotan, hilak 10, Orlan etxean, 18:30ean. Antzuolan dokumentalista izandako Jose Luis Santamaria maristak hitzaldia egingo du. Erakusketa zabalik egongo da hilaren 12an, 13an, 19an eta 20an.



'Ray' Oscarretan saritutako filma emango dute gaur, astelehena

Egunotako zinema eskaintzaren barne, joan den otsailaren 27an Hollywoodeko Oscar sarietan kategorian garrantzitsuenetako baten saritutako *Ray* filma ikusteko aukera dugu.

Hain zuzen, gizonezko aktore onenaren Oscarra irabazi zuen Jamie Foxx aktoreak, Ray Charles musikari handiaren rola egiteagatik, haren bizitzaren inguruko filmean. Bergaran emango dute *Ray* gaur, astelehena, Novedades aretoan, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, sarrera 3 euro da gaur.

Hitzorduk

ANTZERKIA |

Antzezlan bana izango da Aretxabaletan eta Bergaran Korrika Kulturalaren barne

Korrika Kulturalak bi antzezlan ekarriko ditu Debagoienera datozen egunotan. Egubakoitzean, hilaren 11n, Sebastopoleko Titi-riteroek kale-antzerkia egingo dute Aretxabaletan, 18:30ean. Hain zuzen, Venus Attack izeneko lana antzeztuko dute kale-rik kale.

Beste alde batetik, *Euskarraren 7 Bekatu Nagusiak* lana izango da asteburuan, eta sarre-ak salgai daude dagoeneko 8 eurotan Pol-Pol, Arrano eta Ariznoa tabernetan (txarteldegian, 10 euro izango da). Aitzpea Goenagak idatzi eta Olatz Beobidek zuzendutako lan hori Novedades aretoan antzeztuko dute zapatuan.



ZINEMA |

• *Frío sol de invierno* filma emango dute Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. 3 euro da.

• *El vuelo del fénix* filma ikusteko aukera dago Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, sarrera 3 euro da.

• *El caso Bourne* filma emango dute etzi Elgetan Espaloia kafe antzokian emango dute film hori etzi, eguazte-
na, 21:30ean.

• *La casa de los Babys*, Oñatiko zineklub emanaldian Egunotan, hilak 10, emango dute film hori kultura etxean, 20:00etan. 4 euro da.

• *Conversaciones con mamá* filma zineklubean bi herritan Egunotan izango dira bi emanaldiok. Bergaran, Novedades aretoan izango da, 20:00etan. Arrasaten, berriz, Amaia Udal Antzokian emango dute film hori, 20:30ean. Bietan ere, 4 euro da sarrera.

ANTZERKIA |

• *La edad de la ciruela* antzezlan izango da Oñatin Muegano Teatro taldeak egingo du antzezlan hori egubakoitzean, hilak 11, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Txartelak 7 euro kostatuko dira alde-
aurretik erosita, eta 8 txarteldegian.

LEHIAKETAK |

• *Sexmetraia* film labur lehiaketa antolatuko dute Sexmetraia sexualitatearen gaineko film labur lehiaketa deitu du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak. Edozein aurkez daiteke, eta parte hartzeko mugaeguna da ekainaren 10a. Argibide gehiagorako, jo Interneteko www.sexologiazerbitzua.com/sexmetraia helbidera edo deitu 943 79 80 10 telefonora.

• *Gomendatzen dizut...* lehiaketa deitu berri dute Gomendatzen dizut... lehiaketa deitu du Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak. Aste Santurako oporretarako gomendioak behar dituzte. Horiek aurkezteko epea zabalik dago apirilaren 22 arte. Saria da landetxe baten egonaldia.

• *Txorimalo lehiaketan izena emateko azken aukera* Bergarako Jardun elkarteak deitutako lehiaketa horretan parte hartzeko mugaeguna da hilaren 11. Izena emateko, 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonotara deitu behar da.

DEIAK |

• *Eskoriatzako liburutegia goizez ere zabalduko dute* Eskoriatzako liburutegia goizez ere zabalduko dute aurrerantzean. Aste-egunetan, 10:30-13:00 eta 16:30-20:00 ordutegian zabalduko dute; zapatuetan, 10:30-13:00.

MUSIKA |

• *Debagoienera hiru talde joko dute Kilometroaren alde* Kilometroak 2005en alde eta Danbaka Biraren barne, Txuletens (Oñati), Lukas Prest (Eskoriatza) eta Aby-Kem (lehengo AK-47, Bergara) taldeek joko dute egubakoitzean, hilak 11, Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean.

IKASTAROKA |

• *Internet ikastaro asko aukeran Oñatiko KZGunean* Martxorako, honako ikastaroak antolatuko dituzte: ohiko Internet hastapen mailako ikastaroa; Kutxanet Enpresak I eta II; Iberdrola Mikologia; ViaMichelin bidez bidaiatzen ikasteko; Panda Platinum segurtasun sistema; lana bilatzeko; finantzekin lan egiteko; foroa eta FAQ saila; enpresarendako web orriak egiteko, mezularitza, egunkaria online, eta Outlook Express. Argibideak, 943 71 83 20 telefonon.

ERAKUSKETAK |

• *Felix Iñurategi-Baltistan Fundazioaren argazkiak* *Elkartasunean, mendia bide* delako argazki erakusketa zabaldu du Felix Iñurategi-Baltistan Fundazioak. Bergarako kultura etxean dago, aste-egunetan 18:00-21:00 ordutegian eta zapatuetan, berriz, 12:00-14:00 ordutegian.

Jaiotakoak



Libe Parra Navarro
Eskoriatza • 2,940 Kg.
Otsailak 27. Gurasoak:
Oscar (Arrasate) eta Miren
(Eskoriatza). Argazkian:
Libe gurasoekin.



Izar Uranga Askasibar
Arrasate • 3,085 Kg.
Otsailak 27. Gurasoak: Aitor
eta Josune (Arrasate).
Argazkian: Izar amaren
besoetan lo.



Unai Urizarren Machuca
Arrasate • 3,590 Kg.
Martxoak 1. Gurasoak: Aitor
(Aramaio) eta Matilde
(Arrasate). Argazkian: Unai
amaren besoetan.



Maddi Muniozguren
San Julian
Arrasate • 3,200 Kg.
Martxoak 1. Gurasoak: Josu
eta Amagoia (Arrasate).
Argazkian: Amagoiarekin.



June Fernandez Sedano
Eskoriatza • 2,800 Kg.
Martxoak 2. Gurasoak:
Francisco eta Antonia
(Eskoriatza). Argazkian:
June amarekin.



Oxel Lorente Osa
Eskoriatza • 3,660 Kg.
Martxoak 3. Gurasoak: Jose
Antonio (Erando) eta Miren
(Eskoriatza). Argazkian:
Oxel gurasoekin.



Oñatz Farelo Sarasua
Abadiño • 3,300 Kg.
Martxoak 3. Gurasoak:
Aintzane (Elgeta) eta
Karmelo (Abadiño).
Argazkian: gurasoekin.



Oier Carrero Garcia
Arrasate • 3,620 Kg.
Martxoak 7. Gurasoak:
Juanan eta Nani (Arrasate).
Argazkian: Oier aitaren
besoetan.

Zorion agurrak



ARRASATE
Aitor Lezamiz
Martxoaren 3an, 20
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



ARRASATE
Ainhoa Otadui
Martxoaren 5an, 12
urte. Zorionak eta
muhu handi bat!
Julen eta familia.



ARRASATE
Nerea Otadui
Martxoaren 5an, 12
urte. Zorionak eta
muhu handi bat!
Julen eta familia.



ARRASATE
Jabi Uribetxebarria
Martxoaren 6an,
urtebetetzea.
Zorionak! Aita,
Nerea eta Aitor.



ARRASATE
Xabi Biteri
Martxoaren 6an, 12
urte. Zorionak!
Familia eta
Zigorrolako lagunak.



ARRASATE
Urko Rodriguez
Martxoaren 6an, 2
urte. Zorionak!
Familia eta
Zigorrolako lagunak.



ARRASATE
Izar Ijrra Goñi
Martxoaren 8an,
11an 7
urte. Zorionak Naia,
Aitor, Josu eta
Eiderrren partez.



ARRASATE
Josefa Iturriaga
Martxoaren 8an,
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



ARRASATE
Jose Luis Uribarren
Martxoaren 10ean,
urtebetetzea.
Zorionak! Aita,
Nerea eta Aitor.



ARRASATE
Iban Carabias
Martxoaren 10ean,
urtebetetzea.
Zorionak!
Koadrilakoak.



ARRASATE
Xabi Urtzelai
Martxoaren 13an,
26 urte. Zorionak,
bujias!
Lankideak.



BERGARA
Gotzon Arzelus
Martxoaren 1ean,
urtebetetzea.
Zorionak!
Lankideak.



BERGARA
Aitor Garitano
Martxoaren 8an,
5 urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ana Cabezas
Martxoaren 3an,
Orainaldiaren ahal-
mena. Jurgi, Aratz
eta hirurok.




BERGARA
Miren Almaraz
Martxoaren 5ean,
32 urte. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Lankide ohiak.



BERGARA
Maitane Urkiola
Martxoaren 11n,
4 urte. Zorionak!
Etxekoak, bereziki
Alazne.



BERGARA
Maddi Elortza
Martxoaren 1ean,
9 urte. Zorionak eta
muhu handi-handi
bat. Etxekoak.




BERGARA
Ainara Gomez
Martxoaren 7an,
2 urte. Zorionak!
Gurasoak, aiton-
amonak eta izeba.



OÑATI
Maribel Mendibaso
Martxoaren 5ean,
urtebetetzea.
Zorionak!
Arrasateko familia.



OÑATI
Oihana Elortza
Martxoaren 7an,
urteak. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Lankideak.



OÑATI
Eneritz Osinaga
Martxoaren 8an,
2 urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



ARETXABAETA
Saioa Berasaluze
Martxoaren 1ean, 6
urte. Zorionak eta
muhu handi bat!
Etxekoak.



ARETXABAETA
Malen Basabe
Martxoaren 5ean, 2
urte. Zorionak!
Beñat, Nagore, Jone,
Unai eta Mikel.



ARAMAIO
Ibai Cavero
Martxoaren 6an, 8
urte. Zorionak!
Maddi, Maialen eta
Eider.



ELGETA
Ainhoa Azkarraga
Martxoaren 8an, 9
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Leire.



ELGETA
June Morales
Otsailaren 26an,
urtebete. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

sms mezuak

- Zorionak, Oihana. Goienako zure lankideen partez! Astelehena izan arren, egun ona pasa dezazula.
- Miren, aspaldiko! Zorionak potxola. Goienako zure lankide ohien partez, urte askotarako!
- Aupa, Gotzon! Zorionak, eta urte askotarako zure lankideen partez. Ia tragoxka batera gonbidatzen gaituzun!
- Arrasateko kirol kazetari majoenari, zorionak, Goienako zure lankideen partez. Aupa, Xabi. Urte askotarako.
- Aupa, Miren. Dagoeneko gurekin beharrez ibili ez arren, pasatu-ko zara ba hemendik zure urtebetetzea ospatzeko, ezta? Zorionak Asteleheneko Goienkari-ko zure lankide ohien partez!
- Elurra ta elurra. Berak dauka zuk ni ezin ikusi izanaren errua.
- Polixori noiz itzuliko didazu ileko zinta horia? Deitu txoritxuri.
- Realak badu taldea eta liga irabazi ez dugu egingo, baina bigarrenera jaitsi ere ez! Aupa Reala.
- Zorionak Isma, zure lagunentzat. Urtebetetze jaira ezin izan nintzen joan, baina izango gara tragoxka bat hartzeko.
- Polixori, ahaztu dut, itzuli ere bai orrazia!
- Elgetako lianteei! Espaloian juerga polita egiteagatik eskerririk asko.
- Kepa, Gille, Paul eta Ismari zorionak, Marijon partez!

Hildakoak

- Felisa Monreal Velaz**
Arrasate, otsailaren 22an. 74 urte.
- Irene Astoriza Ugarriza**
Leintz Gatzagan, martxoaren 4an. 83 urte.
- Ana Maria Agirre Arenaza**
Bergaran, martxoaren 5ean. 72 urte.

Baita SMS bidez ere!

**Bidali mezua:
gnkzorion [laga tartea]
[mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN

82 euro
943 76 92 71

nolako ikasketak, halako lana*

* **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak** egindako ikerketaren arabera, **MONDRAGON UNIBERTSITATE**an ikasitako en %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz bestek bi hilabeteren buruan.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Saharako maratoia eta pilota kontuak berba

Saharako maratoian korrika egin duen Esteban Laskurain bergararrak esperientzia horren gainean berba egingo du, 10:00etan. Horrez gain, Juanito eta Joxe Arriaran pilotari ohiek Bergarako pilotalekura partiduko profesionalak eramatea aztertuko dute.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Jaiotze-tasa eta Nagusilan elkar

Jaiotze-tasa gora doala eta, horren gaineko erreportajea egingo dute. Horrez gain, Nagusilan elkarkea ere izango dute berba. Premiak dituzten erretiratuei laguntzen dien erretiratuen elkarkea da, eta boluntarioak behar ditu.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Muxutruk' | 11:00

Eguneko albisteei gainbegiratu sakona

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Baserritarrek esnearen gainean duten arazoa

Radio Euskadi

FM 98.2

'Bulevar' | 09:30

Joseba Azkarragari elkarrizketa egingo diote

Gaur telebistan

GOITB



Laxaro Azkune kazetaria 'Ilunpean'-en

14:30 Laxaro Azkune irrati esatari ohi eta bertsozale porrokatuari elkarrizketa egin dio Oihana Elortzak.

13:45 Emisio hasiera. **13:50** Marrakzi bizidunak: Fernando Ametzetarra. **14:10** Marrakzi bizidunak. Lazkao Txiki. **14:15** Berriak. Gorka Etxabek gidatutako albistegia. **14:30** Ilunpean. Laxaro Azkunerri elkarrizketa zabala egin dio Oihana Elortzak. Laxaro Azkune urte askotan Herri Irratiko esataria izan da, eta besteak beste, bertsozale bul-tzatzen ibilia da. **15:00** Gure lanbide zaharrak. **15:30** Berriak. Errepikapena. **15:45** Klip@. Musika taldeen bideoklipak.

19:30 Emisio hasiera. **19:35** Gaurkoak. **19:45** Klip@. **20:00** Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia. **20:30** Marrakzi bizidunak. **21:00** Harmailatik. Kirolen gainekoa. **21:30** Derbiaren laburpena. Aloña-Mondra Azkoagainen. **22:00** Albistegia. **22:30** Harmailatik. **23:00** Derbiaren laburpena. **23:30** Gaurkoak. **23:45** Emisio amaiera.

ETB 1



Drama ugari izango dira 'Goenkale'-n

21:45 Espainiako Estatuko telesaili bateranoen egoera dramatiko ugari bizi beharko dituzte protagonistek.

06:55 Tik-Tak circus. **07:30** Betizu. Doug, Hartz txiki, Doremiren magiaeta Sargin aspertua. **08:55** E-klipse@. **09:20** Travel notes. **09:45** Elkartasunaren bideak. **10:10** Bidaide. **11:55** Bertatik bertara. **12:25** Hitzetik hortzera. **13:05** Barne barnetik. Legazpi. **13:35** Betizu. Bizargorri. **14:00** Gaur egun 1. **14:40** Postdata. **14:55** Eguraldia. **14:50** Hasiberriak. Ederra etorkizuna. **15:25** Txirindularitza. Paris-Niza. **16:55** Bidaide. **18:00** Iparraldearen orena. **18:05** Betizu. Beekerreak, Garfield eta lagunak, Doraemon, Zuzen eta Shin Chan. **20:20** Eguraldia. **20:28** Gaur egun. **21:05** Bertatik bertara. **21:45** Goenkale. **22:25** Ze kosmopolita. **23:45** Ero eta bero. **00:35** Teknopolis. **01:05** Eguna iruditzen. **01:10** Postdata. **01:15** Egi bidean.

ETB 2



Zailtasunak 'El conquistador del fin del mundo'

21:55 lantzirik aurkeztu duen *El conquistador del fin del mundo* saioan lehiakideek proba gogorak egiten dituzte.

07:05 Oficios tradizionales. **07:35** Rutas de solidaridad. Ecuador II: Kichwa. **08:05** Embrujada. **09:00** Forum. David Barberorekin. **09:30** El punto. Juan Luis Bikuñarekin. **10:20** Cosas de casa. Aniversario y cirugia eta El japonés, el dodge y las almejas. **11:10** Stargate. La cumbre. **12:15** Se ha escrito un crimen. La muerte hipnotizada eta Ofensa en el congreso. **13:55** Date el bote. Carlos Soberarekin. **14:58** Teleberri. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua. **15:55** Eguraldia. Ana Urrutiarekin. **16:00** Pasalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin. **18:25** Siempre cine. Zehaztu bariko filma. **20:20** Esta es mi gente. Claudio Landarekin. **20:58** Teleberri 2. Julio Ibarrekin. **21:50** Eguraldia. **21:55** El conquistador del fin del mundo. **00:05** El día en imágenes. **01:10** La zona muerta. **02:55** Esta es mi gente.

TVE 1



'El enemigo en casa' lehiaketa estreinua

19:00 Daniel Domenjok aurkeztuko du kulturaren gaineko lehiaketa berria. Bost lehiakide izango dira.

06:00 Canal24 horas. **07:00** Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin. **09:00** Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin. **10:15** Saber vivir. **11:15** Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du. **14:00** Informativo territorial. **14:30** Corazón de invierno. Txutxumtuxen gaineko saioa Anne Igartibururekin. **15:00** Telediario 1. **15:55** El tiempo. **16:00** Te voy a enseñar a querer. **17:00** Obsesión. **18:00** Serie. Lorenzo Milak aurkeztutako albiste aurrerapena, barnean. **19:00** El enemigo en casa. Lehiaketa berria. **20:00** Gente. **21:00** Telediario 2. **21:55** El tiempo. **22:00** Ana y los siete. La fugitiva. **23:30** 59 segundos. Mamen Mendizabalekin. Errepikapena. **01:30** Telediario 3. **02:00** Deporte.es. **02:30** Siete días. **03:30** Canal 24 horas albistegia.

La 2



'Los Lunnis' txikiendako arrakastatsuak

07:30, 13:00 Txikienek oso gustuko dute *Los Lunnis* tartea, eta horren baitan ematen dituzten marrazki bizidunak.

07:30 Los Lunnis. Meme y el señor Bobo, Aventuras en pañales eta Tweenies. **09:30** Aquí hay trabajo. **10:00** TV educativa: La aventura del saber. **11:00** La botica de la abuela. **11:15** España.es. Mon Santisorekin. **13:00** Los Lunnis. Digimon, Artur, Los Lunnis eta Los mini-monstruos. **15:15** Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin. **15:45** Grandes documentales. Los feroces cocodrilos africanos. **16:55** Frontera límite. **17:30** Los Lunnis. El fabuloso mundo de los hechizos, Los Lunnis eta Mundo perdido kapituluak. **19:30** Pueblo de Dios. Los olvidados de Nairobi. **20:00** Informativo territorial. **20:30** UEFA Champions League. **21:00** Vivir con Mr. Cooper. **21:30** Miradas 2. **21:55** Sorteo de la Bonoloto. **22:00** La 2 noticias. **22:30** El tiempo. **22:35** En portada. Camboya y los jemes rojos. **23:30** Extravagario. **00:30** Metrópolis.

Antena 3



'Pasapalabra'-k ikusle kopuruari eusten dio

20:15 Silvia Jato aurkezle karismatikoak gidatzen duen *Pasapalabra* kultura lehiaketak ikusle kopuru handia dauka.

06:00 Las noticias de la mañana. **09:00** Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako goizetako saioa. **10:45** Cada día. Maria Teresa Campos esatari ezagunak aurkeztutako saioa. Elkarrizketak, tertuliak eta lehiaketak egiten dituzte. **14:30** Los Simpson. La culpa es de Lisa. **15:00** Noticias 1. **15:45** La vida es rosa. **17:00** Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneko laburpena. **18:00** Números locos. **19:00** El diario de Patricia. Herritarren testimonio bitxiez osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin. **20:15** Pasapalabra. Lehiaketa. Gonbidatuak: Poli Rincon, Emilio Oliva, Arantxa Bonete eta Kira Miro. **21:00** Noticias 2. Matias Prats eta J.J. Santosekin. ONCeren sariketa emango dute. **21:45** El pelicolón. 9 días. Akziozko filma. Zuzendaria: Joel Schumacher. Protagonistak: Anthony Hopkins, Chris Rock eta Peter Stormare, besteak beste. **00:25** Especial informativo sobre el 11-M. **02:30** Noticias 3. **02:50** Televenta.

Tele 5



Prentsa arrosa berba, 'A tu lado' saioan

17:30 Emma Garcia goierriarra saiatzen da prentsa arrosaren gaineko saioari ukitu berezia ematen.

06:30 Informativos Telecinco matinal. **09:10** La mirada crítica. Vicente Vallesek. **10:45** El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. La cocina de Karlos Argiñano ere emango dute. Txerri fileteak platanorekin eta pinaburuekin egingo ditu. **14:30** Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrarekin. **15:30** Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin. **16:30** Gran hermano VIP. Laburpena. **17:30** A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin. **19:35** Alla tú. Jesus Vazquezekin. **20:30** Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernandez. **21:30** Pecado original. **22:00** C.S.I. Las Vegas. Todo por nuestro país. **23:00** Especial 11-M. Gertaera haren gaineko erreportaje zabala. **00:00** Cronicas marcianas. **02:20** Informativos Telecinco. **02:45** Madrugada de cine. Testigo inexpectado.

Astean GOITBn

Astelehena, 7



'Derbiaren laburpena' | 21:30

Aloña-Mondra futbol derbiaren laburpena

Atzo jokatu zen futbol derbiaren gaineko laburpena emango dute Harmailatik saioan. Azkoagainen futbol zelaian jokaturako norgehiagokan, Oruetaren taldea gehiago izan zen.

Martitzena, 8



'Debarri' | 21:00, 22:30

Leintz Gatzagaren gaineko saioa

Leintz Gatzagako alkate Joserra Perez izango da gonbidatua Alberto Gorritibereak aurkeztu duen Debarri saioan. Leintz Gatzagaren gainean luze egingo dute berba.

Eguaztena, 9



'Danbaka bira' | 21:30, 23:15

Arrasateko Dolce Vita taldearen kontzertua

Arrasateko Dolce Vita taldeak kontzertua egin zuen Elgetako Espaloian, Kilometroen alde. Arrasateko talde horrek heavy klasikoaren doinuak jotzen ditu.

Eguena, 10



'Behazulo' | 21:30, 22:30

Korrikaren gaineko erreportajea

Korrika 14 hasten den egunean bertan Goiatz Aranek Korrikaren gaineko erreportaje zabala egingo du eta hainbat protagonista elkarrizketatuko ditu.

Egubakoitza, 11



'Ilunpean' | 21:00, 22:45

Patxi Zabaletari elkarrizketa egingo diote

Oihana Elortza kazetariak Patxi Zabaletari elkarrizketa zabala egingo dio. Zabaleta ezaguna da aspalditik politikagintzan dabilelako eta idazlea ere badelako.

Martxoak 7a: 034 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, martxoak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

Zure izena
zerrendan badago,
ZORIONAK!

Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta. (Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat)

- Itziar Urrizalki Azpiroz (Aretxabaleta)
- Emilio Acebo Cañizo (Bergara)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Regina Eraña Iturricastillo (Aretxabaleta)
- Leandro Zaloña Leanizbarrutia (Aretxabaleta)

Martxoaren 14ko sariak

- Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**.
- Martxoaren 18an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **PEREZ Y FERNANDEZ** antzerkirako bi sari (saridun bakoitzarendako bi).
- **BEKE** (Bergarako Emakume taldeak) antolatuta martxoaren 18an Jam aretoan **AMPARANOIA** taldearen kontzerturako, lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi)



EIBAR-TENERIFE
futbol partidua
ikusteko sei
gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)





Hamarrekoa

NIKOLAS SEGUROLA | FRANTZISKOTARRA ETA ARTZAINA

"Istripua izan nuen alanbre batekin, eta begi batetik ez dut ezer ikusten"

Maria Agirre

1. Artzainari ez zaio galdetzen zenbat ardi dituen, baina galdetzera noa. Artzainari zenbat ardi dituen galdetzea edonori banketxean zenbat diru duen galdetzea bezala da. Hala ere, esango dizut; gaur egun, 400 bat izango ditugu Gomistegi baserrian.

2. Zelan ez, aurtengo negua aipatu behar. Hau da hau! Bai, hala da. Gainera, elurra ez zait gustatzen. Hilabete da ardiak ez ditugula etxetik ateratzen. Duela 14 urte izugarrizko elurtea izan zen sasoi honetan, baina ordutik ez nuen horrelakorik gogoratzen.

3. Sasoi txarrean egokitu zaizue elurtea. Arkume jaioberriak, ardiak jetzi-beharra... Eta lan horiek guztiak izugarri gogortzen dira elurtearekin.

4. Zelako emagina zara? Hor ibiltzen naiz, ardiei arkumeak erditzen laguntzen. Burua kanpoan badute, berriro barrura sartu, hankak zuzen jarri eta jaiotzen lagundu. Arkumea bizirik jaiotzen denean oso pozgarria izaten da.

ten da. Hilik badago, berriz, nahiko tristea.

5. Eta gero izena jarri behar. Ardi guztiek dute izena. *Ttantto, Belarri Handi, Harro...* eta horrelakoak jartzen dizkiegu. Beste batzuek, berriz, pertsonaien izena hartzen dute. *Carmen Sevilla, Riesgo* eta *Karpin*, besteak beste. Ezagutu nuen zituen errapeengatik *Sabrina* izena zuen ardia ere.

6. Bihar, martxoak 8. Zure bizitzako emakumerik garrantzitsuenak? Ama, inolako dudarik gabe. Badira 34 urte hil zela, baina oraindik asko akordatzten naiz.

7. Inoiz neskalagunik izan duzu edo maiteminduta egon zara? Ez bata eta ez bestea. Txikitatik fraide izateko ikasi dut. Baina ez dizut esango inoiz ez dudarik gauza horietan pentsatu.

8. Zer gertatu zitzaizun begi batean? Duela 20 urte, alanbre batekin ari nintzela, istripua izan nuen, eta begia galdu nuen. Ebakuntzak egin zizkidaten, baina ez dut ezer ikusten begi batetik.



AINZANE AGIRRE

Txikitatik ardiekin ibili izan dela kontatu digu Nikolas Segurok. Azpeitiko Matximenta auzoan jaiotakoa, "ardi artean jaiotako, ardi zalea zara", esan digu Nikolasek. Eta horregatik, Arantzazura iritsi zenean, frantziskotarrek ardirik ez zutelarik ikustea izan zen nahigaberik handiena. 40 urte daramatza Gomistegi baserrian, eta orain bai, artalde handia du.

9. Bertso-jartzaile ere bai. Orain, oso gutxi, baina garai batean dezente ibilitakoa naiz lan horretan. Joxe Agirre, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki eta Sarasua anaiak oso lagun izan ditut.

10. Gaizki gidatzen duzula esan didate. Bai. Begia dela eta, nahiko gaizki gidatzen dut. Esaten didate erditik joaten naizela. Baina istripu larririk ez dut inoiz izan, e!



Biharamuna

Eñaut Arriaran

Amorrotuta

Haserreak menderatu egiten nau batzuetan eta amorruta pizten zait. Bero kiskalgarririk baten egonezina igartzen dut zainetan zehar, bihotzetik burura igotzen zaidala abiada bizian, arrastoa utziz ibilbide guztian.

Zapatuan, Arrasateko Amaia Antzokian, **Cocidito Madrileño** antzezlanaren ikusteko aukera izan nuen. Aspaldi jarria zuten eskuz idatzitako *Ez dago sarrerarik* kartela. Neuk ere ez neukan sarrerarik, baina azken unean **Margak** eman zizkigun zituen bi sarrera, joaterik ez zuelako. **Eneko** ere gurekin etorri zen. Badirudi, Eneko telefono bidezko mezu bat bidali eta sarrera tokatu zitzaioz Euskadi irratian. Irratsaio honek dagoeneko liburua eta antzezlanaren ditu, ikaragarriko arrakastarekin. Uste dut haren arrakasta gure haserre bizi dela. Ni haserretu egin nintzen, eta ez **Galder Perezek** eta **Eloi Beatok** gaizki antzeztu zutelako, *tertulista* esatariaren hitzak sutan jartzeko modukoak direlako baizik. Zenbat gorroto Madrildik, hainbat umore hemendik, eta umore hartu beste modurik ez dago.

Gaur, nire amorrutan tregua eguna da, bihar ere haserretako izango dugu betarik. Estatistika gorrotagarriak entzungo ditugu. Esango digute emakumeak gutxiago kobratzen jarraitzen duela, eta gizonezkoak batera edo bestera tratatu txarrak ematen jarraitzen dugula. Entzungo dugu beste emakume baten garrasi isila *aski da* esaten, baina oraingoa umorerik ezin erabili. Antzera jarraitzen dugu eta horrek mintzen nau.

35 €

Egin zaitetz harpidedun eta 2005ean etxean jasoko duzu **Asteleheneko Goienkaria**. Dei bat egin eta kitto!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa